

# Galtzaundi

**ESKUALDEA:** Krisiaren gaineko irakurketa LABen eskutik **GIZAKIARI BEGIRA:** Inbidiari buruz

**KULTURA:** Orixeren jaiotzaren 120. urteurrenean orexar idazlea gogoratzuz **KULTUR ORRIA:** Galtzaundiren abenduko ekitaldiak **KIROL SALTSA:** Eskubaloia goraka doa eskualdean



**ELKARRIZKETA:** Ixiar Arratibel, Euskal Selektzioaren aldarria eginez

*Aitziber  
Sarasola,  
Korrikaren  
atzeko  
aldean*

ongi?

ongi pasa?

ongi hartu?

ongi izan?

ongi bizi?

ongi esan?

ongi atera?

...





# berogas

langile elkarte, s.a.l.

Berokuntza, gasa, aire girotua, iturgintza.  
Instalazio industrialak eta etxeak, eguzki-energia.  
Sukaldeko eta bainuko altzariak, etxetresna elektrikoak.  
Aluminiozko eta Poliuretanozko leihoak .

**Denda:** Pº San Francisco, 10 – 20400 Tolosa  
Tel.: 943 653 307  
Tel. / Fax: 943 650 520  
E-mail: muebles@berogas.com

**Bulegoak:** Polg. Usabal, pab. 11A – 20400 Tolosa  
Tels.: 943 672 620 / 943 675 977  
Fax: 943 675 421  
E-mail: berogas@berogas.com

[www.berogas.com](http://www.berogas.com)

**vegasa**

**POLIURETANOZKO LEIHOAK**




## MULTIOPTICAS

1.A ZERBITZU OPTIKOETAN

*Urte Berria,  
Betaurreko Berriak*

Eskaintza honen balioa 08/11/15etik 09/01/06ra artekoa da, Cool markako montura eta lente progresibo organiko batzuetan soilik. Ezin da metatu beste promozioetara.

[www.multiopticagipuzkoa.com](http://www.multiopticagipuzkoa.com)


J. Carlos Guerra 1 Tel. 943 79 29 95 <b>ARRASATE</b>	Ibargarai 16 Tel. 943 76 15 75 <b>BERGARA</b>	C/ Nueva 15 - GROS Tel. 943 32 66 49 <b>DONOSTIA</b>	Bidebarrieta 2 Tel. 943 20 05 22 <b>EIBAR</b>	Koldo Mitxelena, 7 Tel. 943 51 78 11 <b>ERRENERIA</b>	Mendibil M. G. Tel. 943 63 99 01 <b>IRUN</b>	J.M. Barandiaran Enp. Tel. 943 88 99 88 <b>ORDIZIA</b>	San Frantzisko 23 Tel. 943 69 84 70 <b>TOLOSA</b>
--	---	--	---	---	--	--	---



**aldama\_tapia**  
aholkularitza

Foruen Etorbidea\_7  
20400\_TOLOSA Gipuzkoa  
Tel\_943 650 375  
Faxa\_943 655 206  
[gtolosa@aldamatapia.com](mailto:gtolosa@aldamatapia.com)  
[www.aldamatapia.com](http://www.aldamatapia.com)

**NUTRIZIO AHOLKULARITZA**



**AMAIA ETXETXIPIA**  
BIOLOGA

KONDEKO ALDAPA, 5 B - 2ª ESKUBIA. TOLOSA. TEL. 679 934 888

DIETA PERTSONALIZATUAK  
OBESITATEA  
NUTRIZIO BERREZIKETA  
HELDUAK ETA HAURRAK



Argitaratzailea: Galtzaundi Euskara Taldea.

Helbidea: Nafarroa etorbidea,  
6-behea,  
20400 Tolosa (Gipuzkoa)

Telefonoa: 943 655 004

Faxa: 943 654 983

e-posta: galtzaundi@galtzaundi.com

Webgunea: www.galtzaundi.com

Koordinazioa: Leire Zubeldia.

Erredakzio taldea: Igotz Alkorta, Felix Aiestaran,  
Amaia Goikoetxea Azpeitia.

Kolaboratzaileak: Maialen Zubeldia, Amaia Sagasti, Alexander Padilla, Joseba Antxustegietxarte, Jon Ander Ubeda, Txomin Garmendia, Garbiñe Blurrin, J. Agustin Arrieta, Begoña Anisi, Antton Izagimre, Ibon Artola, Inigo Jimenez, Tolosa Bit, Unai Igartua, Virginia Etxami, Jone Otxoa-Aizpurua, Artubi elkarte, Amaia Goikoetxea Orbegozo.

Publizitatea: Angela Alamo.

Banatzzaileak: Oihana Sanchez,  
Juankar Arregi.

Idazkaria: Edurne Mendia.

Maketazioa: Zigor Agirrezabala.

Diseinua: Jon Ander Ubeda eta  
Maddi Truxuelo.

Azala: Galtzaundi

Inprimategia: Antza.

Tirada: 5.000 ale.

Lege gordailua: SS-906/91.

Frankeo Itundua: 37/94.

GALTZAUNDI aldizkaria doan banatzen da Tolosaldeko 23 herri hauetako denda eta tabernetan: Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Alzo, Amezketza, Anoeta, Ballarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa.

Galtzaundik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta intzien erantzukizunik.



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kultura eta Euskara Sailaren, Kutxa Fundazioaren, Tolosako Udaleren eta Tolosaldeko hainbat Udalen laguntza jaso du.

**IRITZIAREN LEIHOA**

- Andoni Egia: Baserritik Euskal Herrira.
- Jone Otxoa-Aizpurua: Narrastiaren arrastoa

**NORMALIZAZIO ATALA**

- Abenduaren 13an BEC-en!



4-5 orrialdeak

6. orrialdea

**ESKUALDEKO ALBISTEAK**

- Langileak krisian: LABek krisiaz egiten duen irakurketa.



10-11 orrialdeak

**Galtzaundi 291**  
2008ko abenduaren 5a

Iritziaren Leihoa: Andoni Egia eta Jone Otxoa-Aizpurua.....4-5  
Eskualdeko albisteak:  
Langileak krisian .....10-11  
Gizakiari begira: Inbidiari buruz .....18  
Kultura: Orixe jaió zela 120. urteurrena .....20-21  
Kirol Saltsa: Tolosa C.F.ko eskubaloí taldeak ezagutzuz .....22-23

**ELKARRIZKETA**  
Aitziber Sarasola 16. Korrikaren zain

ongi? ongi pasa? ongi hartu? ongi izan? ongi bizi? ongi esan? ongi atera? ...

7-10 orrialdeak

**EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILA**  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza  
diruz lagundutako argitalpena

**ELKARRIZKETA**

*“Gizarteak barneratu du euskal selekzioen beharra, baina agintzen dutenek eman beharreko pausuak ez emateko aitzakiak bilatzen dituzte. Gauza bat esaten dute, baina ekintzetan ez dute gauzatzen. Gizarteak esaten duenari ez diote kasurik egiten eta hor dago harresi nagusia”.*

- Ixiar Arratibel ESAITeko lehendakaria

13-15. orrialdea



## BASERRITIK EUSKAL HERRIA

### ANDONI EGIA

Tolosaldeko EHNEko koordinatzailea

**A**upa jende!! Zemuz gabiltze o ze! Oaingo hontan ze attuko ta ze nazkatuko aitzen ta krisie gora ta krisie bera, zenbat kontu attu deun, bua eztau sinisture itteik, tertuliano guzik su baten bakoitze be iritzie bultzazten ta guri iritzie jan nai; notizitan lantegitako langillek kale-ratzen...

Egoera larrik azkenengook baño egitan enteate al gea ze aidan pasatzen eo ze ziri klase ari zaizkigun sartzen? Nik ustet ta uste baño gehio seuru nao ez geala ezertaz enteatzten. Politikok alde batetik mundun bukaera anuntziatzen, hurrengo hauteskundeetan beai botatuz irabaziko balu mundun bukaera hoi atzeatuko lukeela esaten, ya, ya, kabroiak!! Langile makiña kaleako biden ta zuek oaindik ezttet attu kalea zoaztela o zuen soldata euromilloi hoik partitu eo muzin ein diozuenik. Ikusi nahi nizueke zuen "lanai" bukaera eman ta beste lan klasetan lanen: ikullu baten, baso-garbitzen, kakazulok garbitzen, 20. andamio-tik zintzilik makina baten errelebon gau ta egun. Ifiork pentsatze al du majadero kuadrilla honen, arazoa sortu duen beak, konponduko duenik? Oaindik harrittue nao nola eztan jendea bean kontra altxatzen ta denak aurren ematen, la otia!!

Baserrin berriz ze eongo! Desde luego lan faltik behintzat ez to, baita beste hamar launentzakore!!

Berrize ni salmenta zuzenai helduta hasiko naiz, igual pelma xamarra izango naiz baño...elikagaiak zuzen ta tratu pertsonalez saltzez, baserritik zuzenen behar dunai. Mekaguen la ley! Ta idea batzuk beti burun bueltaka ibiltzeittut. Bakit momentu hontan oso urruti naola hortik, baño bueno... ai ba tanteo batzuk.

Nundik hasi eztaikit, alegie ze produktotatik baño nik esne asuntua ibiltzetela ikusita, hortik hasiko naiz. Bueno pentsau, ta gehiegi ez bestela gauzak ezta iten, aber ze kristogatik nei etzait inor etortzen baserria esne eske. Eunoroko esnea, esne esnea ta ez eunero eatezuen aguatxirri hoi. Eztaikit zenbat patzezuen dendan, klaro, markan arabera izangoa, no? Baña beno, pentsatze euro ingurun ibiliko zeatela, goitti beitti hortxe. Baña beno zeatik eztezue zuzenen zuen gertuko baserri baten eosten esnea? Leno, goatze naiz ni kanajo mukizua nitzanen inguruko etxetako jendea marmitakin etortzen zela egunero eo behar zun einen esne bille ta tan feliz danak.

Ze kristogatik galdu da histori hoi? O zeatik utzi da galtzen? Bai baserritarren ta bai kontsu-

mitzaileen aldetik, benetan harri-garrie!

Eo nahikoa zue bata zuri-dun meiku batek baserriko esneak gizendu itteula esatea? letxe de soja, ta desnatau, ta semidesnatau, kon 0 grasa, patatin patatan... bueno hi, nahikoai!! Eunen basoka esne bat goizen ta bestea gauen hartuta ez ta iñor gizontzen, ta gizontze balima... ez esneagatik, dios! Jaten duna ezulako erretzen, baño bueno, hoi beste bateako utzikoet, bale?

Oain, tratu bat ingo deu, nik hala espero behintzat: ni neonik, esnea ekoiztet ta pronto nau gañea ikullua etortze zeatenai esnea saltzeko 0,6 euro litroko. Ze, gaizki iruizen? Pentsa, euro batekin ia bi litro itteitezula! Ta litro bat esnekin gosari earrak iteko mountzeate. Ta ez esan ezteela komodoa ta zea ta bestea... Dios! Jatezuenai beitzen hasi, behin balimare! La puta! Bueno ba, hor geatzea botata ne eskeintza. Batzuk igual parra ingozue baño bueno, eunen baten espabilatuko zeate!

Ta ezta bakarrik esnea hartzeko izaten, beste gauz askotako: arrozkonletxe, yogur, beste hainbat postre, pastel etabar. Behintzat proatu bale? Ta geo geokok, ta esnea bezela beste hainbat gauzekin. Adibidez aurren ze pasa zaigu sagarrakin. Ze-

ati daude errezil saar ear batzuk saastin usteltzen? Ta dendan ai zeate eosten, dendari beak e nungua dan eztaikin saar bat? Eo gazta, zeatik etzaio artzaiai zuzenen eosten, eo berdurak? Eo txekor bat zeatik ez da 2-4 familia arten eosten baserritar bati, ta geo dena konjeladoreen sartzen? Eo arkume bat? Eo, eo, eo, eo... zer da zaile eo ez gea apeatzen? Eo ezta nahi apeau. Ze ustezue, leno esandako produktok eostea etorrita jan ingo zatteula, eo ze? Igual etxezai daon txakurrakin argi ibili, baño lasai, lau hanka dauzke ta, hoik eztake arrabik. Dena hitzeitea izangoa no? A ta leno hitzein deun krisis hoi dala ta, igual planteatu behar da jateko beste modu bat e bai ez? Eo ze kristo!

A ta gaurko notizitan aittut politikotatik batzuk lanez aldatueta, gukin erukkittuta!! Juanjoxe izeneko bat baso garbitzen ai omen da desbrozadorakin, Miren izeneko bat 20. aldamiion ai omen da juntak hartzen, Patxi izeneko beste bat parkeko komun publikotan, kakazulok garbitzen, Maria izeneko bat ikulluaxurre hartu ta ximaurre ateatzten, ta JosuJon bat enterradore sartu omen da! Joe hoi bai ejemploa!! Baña ez, dena gezur-re da, hemendik hamar krisitare berdin seittuko due hoik. Hala, adios!!! ■

**ZETA**<sup>S</sup><sub>L</sub>

**MUNTAKETA ELEKTRIKOAK**

Usabal z/g - 23. postakutxa  
20400 TOLOSA  
Tel.: 943 672 728  
Faxa: 943 673 219



**GORRI**

**Paper manipulaziorako makina eraikuntza Konponketa eta mantenimenduak**

Apatta industrialdea. Baratzondo D 26. IBARRA  
Tel.: 943 671 590. Faxa: 943 673 916

**Alaia**



**kafetegia**

Gudari kalea, 10 - TOLOSA  
Tel.: 943 652 643



## NARRASTIAREN ARRASTOA

### JONE OTXOA-AIZPURUA

Abeslaria

**1** 80 graduko bira ematekotan naiz. Badirudi, nire bizitzarekin aldaketa erradikal bat egiteko zorian nagoela; baina ez da inondik ere horrela. Askoz ere sinpleagoa da azaldu nahi dudana. Atzera begira jarriko naiz. Alegia, aurreko artikuluan ez bezala, oraingoan, iragana dut hizpide. Hamar urte barruko kontuak alboratu eta amaitzear dugun urteari erreparatu nahiko nioke.

Memoriaren hautsak astintzen hasita, ederki asko akordatzten naiz orain urte bete, orain nagoen leku berean, orain egiten ari naizen gauza bera egiten ari nintzela. Idazten. Leku berean nago, bai. Baina urte luze edota laburra igaro da gure begien aurretik eta amaierara ailegatzen ari da; film bat bailitzan; hasi eta bukatu egiten da. Eta aitortu behar,

2008a pelikula bat balitz Ben-Hur eta Titanic filmeek lortutako Oscar sari kopurua gaingaituko zukeela. Film onenaren Oscar saria, gizonen eta emakumezko aktore onenarena, muntaketa-rik onenarena... guztiak 2008arentzat. Izan ere, pentsatzen hasita, bereak eta bi eman ditu 2008ak.

Ez dut uste zentzuzkoa denik urte honek eman dituen gertakariak zerrendatzen hastea. Ezta ere gertakizun garrantzitsuenen zerrenda laburrago bat egitera mugatzea. Izan ere, zein dira garrantzitsuenak? Norbana-koak hausnar dezala gure filmeko kapituluetaz eta gertakarietaz eta sailka ditzala bere irizpideen arabera. Hala ere kontua da, egunero-egunero, egunkarietako letra tamaina txikia izan arren, 50 orrialde betetzeko adina gauza gertatzen direla gure

inguruan. Egunero-egunero 45 minututako albistegiak egiteko adina ematen duela gure munduak. Albistez eta titularrekin gosalduta, bazkaldu eta afaltzen dugu egunero. Eta askotan, sarritan, maiz, digerigaitzak zaizkigun berriak irensten ditugularik.

Beraz, ezin uka, 2008a hamaika gertakariren jabe dela. Ezin uka, basamortu zabalean, gameluen oin aztarnak amaigabe direla; egunero gertaerak legez. Baina 2008ko basamortu beroan, gameluen aztarnez gain, egunero albistez gain, bada aztarna, arrasto luze-luze bat. Bada, 2008aren hasieratik amaierara arrastaka doan narrasti luzea; etenik, atsedetik gabe.

Barkatu baina ni ere kutsatu naute. Ezin izan dut hitz santu eta madarikatu hau aipatu gabe utzi. Arras-

*“Barkatu baina ni ere kutsatu naute. Ezin izan dut hitz santu eta madarikatu hau aipatu gabe utzi. Arrastaka doan narrastia baita “krisia”. 2008ko gure filmeko pertsonaia maltzurra da krisia”*

taka doan narrastia baita “krisia”. 2008ko gure filmeko pertsonaia maltzurra da krisia.

Krisi garaiak tentsio garaiak dira; latzak, gordinak eta guztia ari gara pairatzen; sufritzen. Baina aldi berean, konponbide garaiak ere izan litezke krisi garaiak. Ea ba berehala hastear den 2009 filmetik desagerrarazten duten/dugun aktore maltzuraren arrastoa. Krisiaren arrastoa. ■



Baserriko produktu naturalak  
Mahala baserria • LEABURU  
Tel.: 943 673 499

Gozotegia


Okindegia

**ECEIZA**

P. Gorosabel, 34 - Telf. 943 655 161 - San Francisco, 8 - Telf. 943 651 916

**ARALAR  
KIROLAK**

Laskorain, 7 • TOLOSA  
Tel.: 943 654 916



**IRASTORZA GARRAIOAK**



Iruñea etorbidea, 14A • Usabal industrialdea  
P.K. 209 Tolosa • Tel.: 943 670 248 • Faxa: 943 671 865



# Abenduaren 13an BEC-en!

“PAUSU BAT HARAGO” EMATEKO DEIA ZABALDU DU KONTSEILUAK

Erredakzio Batzordea

**E**uskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak indarrez hasi zuen bere ibilbidea “Bai Euskarari” kanpaina jendetsuarekin. Euskaltzaleok 1998.urteko abenduan, “Euskaraz bai”rekin bat egin genuen Euskal Herriko 5 kirol estadioetan egindako ekitaldian. Are gehiago, 20 urte lehenago ere erabilitako “Bai euskarari” leloa bereganatu zuten. 10 urte igaro dira ordutik eta hamaika arlotan lan egin du ordutik euskalgintzak euskararen normalizazio lortzeko, hau da, euskaraz naturaltasunez bizitzeko. Hamaika ahalegin egin arren, oraindik lortutakoa ez da nahikoa, euskarak gaur egun ez baitu etorkizuna ziurtaturik. Euskararen normalizazioa posible dela argi daukagu. Euskararen ezagutza eta erabilera areagotzea da klabea.

Euskaraz naturaltasunez bizitzea lortzea posible delako,

**Urratsa emateko hitzordua abenduaren 13an 18:00etan Bizkaia Arenan izango da. Bertan, kontseiluaren ibilbidea azaltzeaz gainera “euskaraz bai”ra iristeko proposamena gauzatuko dute.**

baina horretarako euskararen ezagutza areagotu behar dugulako, Kontseiluak 10 urte bete ondoren “Bai euskarari” leloa pauso bat harago eramandu. “Euskaraz bai” esateko eta egiteko garaia da.

## TOLOSALDEAN ERE “EUSKARAZ BAI”

Tolosaldean ere ekimen honen aldeko atxikimendua biltzeko eta abenduaren 13an BEC-en egingo den ekitaldirako deialdia luzatzeko, azaroaren 21ean, Tolosako berdura plazan, eskualdeko euskaltzale guztiei luzatutako deialdia gauzatu zen. Eskualdeko eragile desberdinak bertaratu ziren, Tolosaldean ere “Euskaraz bai” aldarrikatu genuen.

## BEC-ERA JOATEKO AUTOBUSAK

Abenduaren 13an, arratsal-



deko 15:30tan aterako da autobusa Tren estaziotik eta itzulera ekitaldia amaitzean izango da. Izena emateko Galtzaundiko egoitzara gerturatu, bertan eskuratuko baitutuzue bertara sartzeko txartelak. Autobusaren kostea, 11 eurotako izango da bazkide ez direnentzat eta bazkide direnentzat berriz, 8 eurotako. Anima zaitzete!

Informazio gehiago [www.nierebanoa.com](http://www.nierebanoa.com) web orrian aurkituko duzue. ■

## EUSKALDUNEN HIZKUNTZ KEXAK JASOTZEKO, BUZOIAK JARRI DITUZTE UEMAKO UDALEK

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateko Tolosaldeko udaletxeetan buzoiak jarri dituzte, euskaldunok euskaldun koherente gisa jokatzeko edo jokatu nahi izateagatik izan dituzten esku-bide urraketak salatzen. Izan ere, oraindik asko dira euskaldunak baztertzan dituzten tokiak eta eragileak. Kexa jartzera joaten denak erraz betetzeko inprimakia izango du buzoien ondoan eta nahiz eta, izen abizenak bertan jarri, UEMAK eta Behatokiak konfidentzialtasun osoz jokatu dute. Ondoren kexa behar den tokira helarazi eta haren segimendua egingo dute. Informazio gehiago [www.galtzaundi.com](http://www.galtzaundi.com) -en.

# antza



# Aitziber Sarasola, Korrikaren pauso bakoitzean dagoenaz

KORRIKAREN ATZEAN DAGOENAZ HITZ EGIN DU AITZIBERREK

Leire Zubeldia

**B**erriketan nafar azentoa nabari bazaio ere, Aldaba Txikikoa da Aitziber Sarasola. “Beti, leku guztietan, harro azaldu dut nire Aldaba Txikiko tasun hori”, argitu du hasieratik. 19 urte zituela utzi zuen jaioterra eta Iruñeara joan zen soziologia ikastera. Orduz gezotik Nafarroan bizi da. Xox batzuk ateratze aldera, Txantreako AEK-n euskara ikasteko eskolak ematen hasi zen. Gero-ra, Nafarroako AEK-ko koordinatzaile izatea egokitu zitzaion. Gaur egun, AEK-ren Nafarroako arduraduna da. Beraz, Martxoan 26an Tuteratik abiatuko dena kontutan

**Badator Korrika! Eta Korrika datorrenean inoiz baino lanpetuago egoten da Aitziber Sarasola (1973, Aldaba Txiki). Nafarroako AEK-ko arduraduna izanik, Korrikaren antolaketan lan egitea egokitzen zaio. Erantzunkizun sentimendurekin batera, ohorea ere sentituarazten dio Euskal Herria aldenik alde zeharkatzen duen lasterketa antolatzeak. Korrikaren azkeneko aldian, Iruñeako kaleetan barrena, lekukoarekin azkeneko metroak egitea egokitu zitzaion bezala, martxoaren 26an Tuteratik abiatuko den 16. Korrikaren lehenengo pausoa egingo ditu. Korrika ez, patxada handiz hitz egin du Aldaba Txikiko euskaltzaleak Galtzaundirekin.**

hartuta, 7 Korrika daramatza Aitziberrek AEK-ko langile bezala. Izan ere, AEK-n Korrika-ka zenbatzen dituzte urteak.

**Zein da zure zeregina Korrikan?**  
Korrikak bere funtziona-

mentu partikularra du AEK-ren barruan. Instrumentu nahiko autonomia da. Hala ere, Korrikaren iparra markatzen duten erabakiak, AEK-ko zuzendaritzak hartzen ditu. Ni, AEK-ren artezkaritzan,

Nafarroako ordezkaria naiz, eta era horretan parte hartzen dut Korrikan. Gero, zuzendaritzako kideei tokatzen zaigu lanik zikinena egitea; lan protokolariaz ari naiz.. Eta partikulariki, Iruñean amaitu zen 15. Korrika errematatzea egokitu zitzaidan. Hura AEK-k egin didan oparirik onena izan zen. Aurten Korrika has-tea egokituko zait.

**Zenbat denbora daramazu AEK-ren Nafarroako arduradun bezala?**

Duela hiru urte hasi nintzen artezkaritzan. Uste dut nahikoak direla. Dagoeneko jubilazioan pentsatzen hasita nago.

**(hurrengo orrian jarraitzen du)**

(aurreko orritik dator)

**Korrika bera bezala, lasterketaren abiapuntua eta helmuga sinbologiaz kargaturik egoten da. Aurten Tuteratik abiatuko zarete...**

Bai, eta badu bere arrazoia: Nafarroako AEK-n, 1993-1994 urte artean izan genituen ikasle gehien. Tuterako euskaltegian 100 ikasleren bueltan ibili ginen. Euskaltegia Tuteran zegoen, baina inguruko herri askotan ematen genituen eskolak. Fontellasen, Cascanten... Baina hori maldan behera joan da, eta gaur egun, arazo handiak ditugu Tuterako euskaltegian, bai irakasleak to-

tzen dugu, eta oso tresna gutxi ditugu arreta hori geureganatzeko. Horregatik erabaki dugu, 16. Korrika Nafarroan, kasu honetan, Tuteran hastea. Korrika tranpolin bat baita, eta euskaltegiari indarra eta adorea emango dizkio. Ea irakasleak zein ikasleak lortzeko aukera ekartzen duen.

**Zein da Nafarroako eta bereziki Erriberako euskaltegien egoera?**

Kontutan hartu behar da Erribera Nafarroan legalki eremu ez-euskaldunean dagoen lekua dela; euskararekiko uzurtasuna nonbait baldin badago, han dago. Izan ere, UPNren sektore erreakzionarioenak Erriberan daude, eta

**AEK-k zenbat euskaltegi ditu Nafarroan?**

Gipuzkoar batentzat zaila da Nafarroako AEK-ren egitura ulertzea. Iruñerrian populazioaren erdia baino gehiago biltzen da. Nafarroako gainontzeko populazioa oso sakabanatua dago. Guk euskaltegiak eskualde-buruetan ditugu. Sakanan adibidez, Altsasun gaude, baina eskolak ematen ditugu, Etxarrin, Arbizon, Lakuntzan... Pirineoak deitzen diogun eremuan esaterako, euskaltegiak ditugu Garraldan eta Erronkarin, baina eskolak ematen dira Ezkarotzen, Oroz-Betelun... Jendea batetik bestera mugitzen ohitua dago. Baina

jendeak izugarrizko ahaleginak egiten ditu. AEK-ko jendea fina da Euskal Herri osoan, baina Nafarroan bereziki da fina. Korrika Nafarroa Erriberan hastearekin, errekonozimendu hori ere eman nahi zaie horrela ibiltzen diren irakasleei.

**16. Korrika Gasteizen amaituko da. Zer dela eta?**

Ba, Gasteizen ez delako aspaldian Korrika hasi edo bukatu. Gainera, Araban ere euskararen egoerak bere berezitasunak ditu. Azkenaldian Gasteizen lan handia egiten ari dira euskalgintzaren sektorean, baina han ere erasoak oso gogorrak izaten ari dira. Guk uste genuen, Gasteizek merezi zuela. Zeren guretzako, zure hirian Korrika hasi edo bukatzea ohore bat da, une batez bada ere, protagonista bihurtzen zarelako, eta zentralitate bat lortzen duzulako euskararen munduan.

**Gurera etorri eta euskara ikasi dutenei edo ikasten ari direnei egin nahi diezue omen...**

*Ongi etorri euskaraz bizi nahi dugunon herrira*, da mezua. Hau izan daiteke, Euskal Herrira etorri diren horiei begira, edo izan daiteke, baita ere, Euskal Herrikoak direnei, baina, euskarara hurbildu ez diren horiei zuzenduta. Ez dugu soilik etorkinen kasura mugatu nahi. Ongi etorria eman nahi diogu, euskararen mundura edo euskaraz bizi nahi dugunon herrira etorri nahi duen guztiari. Soslai ezberdinak daude, eta horiek denak biltzeko dokumental bat egiteko asmotan gabiltza.

**Korrika Kulturala ere laster jarriko duzue martxan. Zerbait aurreraterik bai?**

Urtarrilaren hasieratik Korrikaren bezperara arte luzatuko da. Korrika Kulturalaren ekarpena da, kultura



patzeko, eta baita jendea euskaltegira erakartzeko ere. Arazo honek, Nafarroako AEK-n, eta azken finean, baita AEK osoan ere, izugarrizko ezinegona sortzen du. Sentitzen dugu, lurralde eremua despistatzen ari zaigula. Euskalduntzearen kontu honekin ari gara lanean, baina nolabait jendea despistaturik dagoela soma-

euskararen kontrako mezuak kalado handia dute bertan. Horren eragina nabaritu egiten da. Ikastola badago; Ez da ikasle kopurua biderkatzen ari den Ikastola, baina behintzat mantendu egiten da, beti ere gorako joera apal batekin. Baina Ikastola eta AEK-z gain, han ez dago euskararen bestelako zantzurik.

ez bi kilometroko distantzian. Jendea 40 kilometroko distantzian mugitzen da. Adibidez, Zangotzan euskaltegia dago. Zangotzatik Irunberri eskolak ematera joaten denak 25 kilometro egiten ditu. Hori joateko, zeren etortzeko beste horrenbeste egin behar ditu, gaueko 22:30etan eta elurretan. Alde horretatik,





eramatea kultura eraman ezin den lekuetara. Adibidez, Korrika Kulturala Tolosara eramatea ez da aparteko berezitasuna. Aldiz, Tuterara, Zangotzara edo diru faltagatik ezer egiteko aukerarik ez dagoen lekuetara eramatea gauza handia da.

Korrika Kultural honetarako, Kabaret batekin ari gara lanean. Anitzak elkartarekin ere elkarlan batean ari gara, antzerkia eta hip-hopa nahastuko duen obra bat taxutzen. Ander Lipusekin ere hartu-emanetan gaude.

### **16. Korrikak noski, bere kantua ere izango du. Derrigorrean atera beharreko gaia da hau...**

Bai, baina ez dut ezer aurreratuko. Durangoko Azokan ezagutzeko aukera izango da agian, eta hemen ez bada, laster egongo da entzungai, abestia egin duen taldeak bere disko berrian sartuko baitu 16. Korrikaren kantua.

### **Korrikarekin bildutako dirua zertara bideratzen da?**

Korrika jendarteko elementu oso garrantzitsua da eta euskararen aldeko oso ohiu garrantzitsua da, baina AEK-arentzat, guztiaren gai-

netik, diru iturri oso oso garrantzitsua da. Gogoratu behar dugu, AEK-k Euskal Autonomia Erkidegoan lortu duela gutxi gorabeherako finantziario marko egoki bat, baina Nafarroa eta Iparraldean egoera oso makurra da. Nafarroan esaterako, borroka izugarria dugu diru-laguntzekin. Urtetik-utera, eskaskeriatik eskaskeriara goaz. Hori, AEK-k nolabait mantendu beharra dauka, eta horretarako, Korrika diru iturri nagusietako bat da.

Korrikan, dirua biltzeko bideak hiru dira: Horietako bat Korrika Laguntzaileak dira: Pin baten truke eta txartel baten truke lortzen dugun dirua laguntza handikoa da guretzat. Baina zalan-tzarik gabe, diru iturri garrantzitsuena kilometro salmenta da. 2.100 kilometro jarriko dira salgai. Oraindik ere harritu egiten gaitu jendeak metro batzuetan lekukoa eramatearen truke dirua ordaintzearen ideia. Baina Euskal Herria horrelakoa da. Gero, Korrika Laguna ere egiten da, herrietako komertzioetan dirua eskatuz. Petoak saltzen ditugu; materiala ere bai... Arima ere saltzen dugu egun horietan. Gure

aurreikuspenen arabera, Korrikaren diru ekarpenak seihun mila eurotako izan beharko luke.

### **Aurreko Korrika Iruñean amaitu zenean, lekukoarekin azkeneko metroak egiteko aukera izan zenuen: Nola gogoratzen duzu une hori?**

16 urte hauetan AEK-k egin didan oparirik onena izan zen hura. Kristona izan zen niretzat. Urduritasuna ere tamainakoa zen, zeren Gaztelu plaza sinbolikoki oso esanguratsua da niretzat. Jende mordo zegoen han zain: Familia, lagunak, lankideak... Errespetua ematen dizu horrek, eta gero Korrika batek eskatzen duen erantzunkizuna ere sentitzen duzu. Gainera, Amurizarekin batera eraman nuen lekukoa, eta txikitant etxean askotan entzuten genuen Amuriza, aitari asko gustatzen baizitzaion. Horregatik, banuen horrelako sentimendu nahasketa bat. Oso polita izan zen.

### **Txikiak ginenean ilusio ikaragarriarekin egoten ginen Korrika noiz iritsiko zain. Eta orain, helduak garela, berdin-berdin egoten gara. Zer du ba Korrikak?**

Korrikak alde errebindika-

*“Korrika Tuteran hasiko da, korrika tranpolin bat baita, eta euskaltegiari indarra emango baitio. Ea irakasleak eta ikasleak lortzeko aukera ekartzen duen.”*

tibo bat du, baina errebindikazio hori era positibo batean egiten da, kirola eginez. Eta nik uste dut, poza kutxatu egiten dela. Lekukoa hartzea gauza handi bat da, ez baitu edonork hartzen. Adin guztietako jendea biltzen duen ekimena da, bere inguruan beste hainbat ekimen sortzen dituen...

Zuk ilusioa aipatu duzu. Ni Tolosan bizi nintzenean, Korrika pasatzen zen, baina ez nuen horrelako ilusio izugarririk sentitzen. Gero, Iruñeara joan nintzenean, han deskubritu nuen zer zen Korrika. Oso ezberdina da, eta eskualdeko guztiak animatzen ditut Iruñeara joatera eta han Korrikan parte hartzera. Martxoaren 27an pasako da Iruñeatik.

### **Noiztik ez duzu Tolosan korrika egin?**

Ba hamasei urte nituenetik. Beti Nafarroan harrapatzen nau Korrikak. Aurten saiatuko naiz agertzen. Tolosarrek lekukoa eramaten uzten badidate han izango naiz, ziur.

### **Non egingo duzu korrika?**

Ezineztean Tuteran egingo dut Korrika, bertatik abiatuko delako eta gogoia dudalako Tuteran korri egiteko. Korri egingo dut Txantrean, adoptatu ninduen auzoan, korri egingo dut Beramendin, bizi naizen herrian, eta korri egingo dut, noski, Gasteizen. ■

**TOLOSALDEA >>>** ESKUALDEAN BI LANTEGITAN ZABALDU DIRA EXPEDIENTE ERREGULATZAILEAK

# Langileak krisian

Mamu bat da, edo benetan gaude krisian? Eta hala bada, nola eragin du eskualdean? Galdera horiek abiapuntuz hartuta LAB sindikatura jo du Galtzaundik. Sindikatu honek, krisiaren gainean diagnostikoa egin eta txosten batean aurkeztu du. Hausnarketa honetan oinarrituta, egoeraren berri emateko hainbat ekintza egingo dituzte urtea amaitu arteko epean.

*Erredakzioa*

**K**risian omen gaude. Besterik ez da entzuten azkenaldian. Alarma piztu da. Badaezpadako egoeraren aurrean administrazioa neurriak hartzen hasi da, banketxeek eta enpresei mota ezberdinetako laguntzak emanez. “Krisiaren probokatzailak babesten ditu administrazioak. Beste behin, langileek ordaindu beharko dituzte krisiaren ondorioak”, azaldu du LABeko eskualdeko arduraduna den, Mari Mujikak.

Eskualdeko ordezkariak sindikalaren %43a duen LAB sindikatuak ez du krisia dagoenik ukatzen. “Guk ikusten duguna da, azken hamabost urteetan enpresa eta banketxeek inoizko diru irabazirik handienak izan dituztela. Goierrri eta Tolosaldeko hainbat enpresek uko egin die azken urteetako balantze ekonomikoak erregistro merkan tilean aurkezteari. Nahiago izan dute horrek dakarren isuna ordaindu euren irabaziak publiko egitea baino. Hortik ikusi zenbat irabazi

duten. Eta orain, krisiaren izenean langileei solidarioak izateko eskatzen digute. Guk estutu behar ditugu gerrikoak, baina azken hamabost urteetan pilatutako patrimonioa ukitu ere egin gabe euren patrikan geratuko da oso osorik”. LABen hitzetan, azaldu-tako hau izan da enpresarien joera orokorra. Hala ere, irabazien zati bat enpresaren etorkizunean inbertitu dutenak ere egon direla azpimarratu nahi izan dute. Enpresariak joera hori hartu badute, administrazioaren babesarekin kontaktatu dutelako dela uste dute sindikatuan.

## ZENBATERAINO ERAGIN DU KRISIAK ESKUALDEAN?

Krisiak ez du maila berean eragin eskualde guztietan.

Estatuan krisia gehien jasaten ari den sektorea eraikuntza da, baina Euskal Autonomia Erkidegoan, sektore hori osasuntsu dago, administrazioa bera ari baita eraikuntza enpresei lana ematen (etxebizitzak, Abiadura Handiko Trena...). Gipuzkoan industria da nagusi, eta sektore honetan, krisia ez da hain nabarmena. “Lantegi askok 2010era arteko lana ziurtatuta dute dagoeneko”. Honek ez du esan nahi ordea, lantegi guztiak egoera berean daudenik. Zenbait lantegi estu dabilta.

Krisi hotsak entzun arren, Tolosaldean ez du eragin handirik eduki oraingoz. Hala nabarmendu dute LABen. Langabezia datuei begiratuta antzematen da hori: Aurtengo urtarrilean

1547 langabetu zeuden eskualdean. Urrian berriz, 1662. Igoera egon da bai, baina ez da nabarmena izan. “Guk ez dugu halako krisi egoerarik nabaritu. INEM-ekin harremanetan gaude eta eurek ere gauza bera esan digute”. Tolosaldean soilik bi enpresetan zabaldu dira expediente erregulatzailak. Honek ez du esanahi ordea, egoera gaiztotu ez daitekeenik.

## EXPEDIENTE ERREGULATZAILEAK ENPRESARIEN TRESNA

Krisiarekin batera, sasoi haueetan gehien entzuten den beste kontzeptua, expediente erregulatzailarena da. Oihana Lopetegi, LAB sindikatuko langileak azaldu du zer den: “Expediente



Erakuntza da Estatu mailan krisiaz gehien eragin duen sektorea.

*“Lan delegaritzari esan behar zaio ezin duela edozein expediente onartu.”*

erregulatuzailea enpresaren neurri kolektibo batzuk hartzeko tresna da. Bi expediente mota daude: lehena, langileak kaleratzeko eta bigarrena, langileak aldi baterako langabeziara bidaltzeko. Enpresa da expedientea proposatzen duena, baina gero, langileen delegaritzak onartu behar du”. Sindikatuaren ustez, enpresariak oso erraz jotzen dute tresna hau erabiltzera. Lopetegi eta Mujikaren iritziz, “hainbat lantegitan expedienteak zabaldu dira, ez diru galerak izaten ari direlako, langileak kanporatuz, eu-

ren soldata ordaindu gabe aurrezten dutenarekin irabaziak mantentzeko baidir”. Gainera, oso larritzat jotzen dute, expedienteak aurrera ateratzeko legeak jartzen dituen gutxieneko baldintzak. “Expediente bat onartzeko baldintza bakarra, produkzioa jaitsi egin dela justifikatzea da. Guk geuk, Eusko Jaurlaritzako lan delegaritzan alegazio bat baino gehiago jarri dugu. Expedienteak aurkeztu duten zenbait enpresa diru irabaziak izaten ari dira, eta hala ere Azkarragaren sailak onartu egin ditu expediente horiek”, adierazi dute harriduraz.

Expedienteak onartzeko adimintrazioak ematen dituen erraztasunak ondorio

asko izan ditzakete eta dagoeneko izaten ari dira. Karamelo gozoa da irabaziak mantendu nahi dituzten enpresariarentzat. “Gainera, ugazabek euren langileei azken neurri bezala aurkezten die expedientea: *50 langile kanporatzea edo enpresa ixtea. Zuek aukeratu*. Enpresa askotan hori planteatzen ari dira, inongo lotsarik gabe gainera”, salatu dute. Txantaia honekin, lantegiaren egoera “txarra” langileen bizkar gainera botatzen dutela salatu du LABek. “Beti ez da horrela, baina orokorrean, enpresariak, egoera aitzakiatzat hartuta, langileen lan baldintzak okertzeko saiakeretan dabilta: Soldata jaitzierak, lan orduak igotzea...”. Krisia gehien pairatuko dutenak, egoera prekarioenean daudenak izango dira: gazteak eta emakumeak hain zuzen ere.

Egoera hau izanik, LABek uste du, Eusko Jaurlaritzari presio egitea dela bidea. “Lan delegaritzari esan behar zaio ezin duela edozein expediente onartu. Eta hori egiten duten

bakoi-tzean, enpresariaren aldeko apustua egiten ari diren bitartean, langileen aurka egiten ari direla esan behar zaie”.

Laburtuz, LABen ustez langileak dira krisian daudenak eta krisiaren ondorioak jasan beharko dituztenak. Honen aurrean, langileak elkartzeko eta antolatzeko beharra azpimarratu dute. Bien bitartean, LAB sindikatuak erreportaiaren honetan azaldu-tako ideia nagusiak gizarteratze aldera, hainbat ekimen ezberdin antolatuko dituela iragarri du. ■



 **CDI**  
**Informatika**  
Osagaiak  
Desarrolloak  
Instalakuntzak  
GUDARI KALEA 15-BEHEA TEL.: 943 650 199  
TOLDOA (GIPUZKOA) FAXA: 943 653 916

**COMERCIAL**  
**ISASTU**  
**XXI S.L.**  
**INDUSTRIARAKO**  
**HONIDURAK**  
Iparragirre auzoa, 1-behea  
20400 Tolosa  
Tel.: 943 673 726 • Faxa: 943 673 462

**METAL'KO**  
Mertzeria eta  
konponketak  
Zumalakarregi etorbidea, 7  
TOLOSA

  
Arostegieta kalea, 2 - Tolosa







Ixiar Arratibel, Mikel Urkola anoetarrarekin batera euskal selekzioaren aldeko aldarria egiten.

# Ixiar Arratibel

## Euskal kirolaren ametsa xede

NAZIO BAT, SELEKZIO BAT ALDARRIARI EUTSI ETA AKUILU LANARI EKINAZ

Felix Aiestaran

**E**spainiako kirol selekzioek, tartean euskaldunak dituztela, lortu berri dituzten kirol arrakastak direla medio, herri-tarren arreta bereganatu dute. ESAIT-ek errespetatu egien du kirolari bakoitzak bere ibil-bidea garatzeko hartzen duen erabaki oro eta zehaztu egiten du estatu selekzioei uko egin dieten kirolariak ere badirela.

ESAIT-ek, kirolari, elkarte, federazio, politikari eta oro har gizartearekin egiten du lan, euskal kirolariak euskal selekzio batean aritzeko aukera izan dezaten. Bitartean nazioarteko kirol topaleku guztietan euskal selekzioen alda-

**Ixiar Arratibel Imaz (Tolosa, 1964) ESAIT-eko lehendakaria da. Duela hamaika urte sartu zen ESAIT-en. Hasiera batean euskal pilotan ordezkari-tza lortzeko nahietik abiatu zen. Gero, kirol guztietan euskal selekzioen ordezkari-tza ofiziala lortzeko xedearrekin, euskal herritarren artean bere aldeko iritzia eragiten gogotik jarraitzen du. Euskal Herri osoan euskal selekzioaren aldeko apustua oso zabaldua dago. Bien bitartean, ESAIT-ek gure kirolariak ordezkari-tza dituzten euskal selekzio guztien aldeko egunean eguneko lan isilean dihardu. Taldeak duen babes ekonomiko bakarra, kaleetan gazte kirolari ugariren soinean ikusi ohi ditugun kirol jantzien salmenta da.**

ria zabaltzen saiatzen da: olimpiadetan, Tournean...

Abenduko futbol partidua folklorea hutsean geratzeko arriskua ikusten dute. Iazkoan Euskal Herria izenaren pean, milaka pertsonak egin zuten

euskal selekzioaren aldeko deia darra Bilboko kaleetan. Aurten, kezka sortu du, euskal selekzioak, berriro, Euskadi izena hartu izanak. Gerra Zibileko garai garrantz haietan euskaldunon ordezkari-tza

Euzkadi izenaz, kirol emaitza bikainak lortuaz, mundu osoan zehar zabaldu zuten euskaldunon izana. Diktadura amaitu ostean Euskadi izenaz ekin zion, Kortabarria eta Iribar ikurrina eskutan zelairatu ziren garai itxaropentsu hartan. Gaur egun, izana eta izena lotuaz liskar latza sortu da, euskal jokalariek Euskal Herria izena aldarrikatzean. Aipatutako gai guzti hauek jorratu ditugu Ixiar Arratibelekin.

**Zer da ESAIT?**

Euskal selekzioaren aldeko iritzia bultzatzen duen taldea da. Euskal selekzio ofizialaren beharra aldarrikatzen du eta

**(hurrengo orrian jarraitzen du)**

gizartean eragin nahi du, arduradunak erabakiak hartzera bultzatzen. ESAIT siglek Euskal Selektzioaren Aldeko Iritzi Taldea esan nahi dute.

#### **Zein da ESAIT-en helburua?**

Gure aldarria, euskal kirol selektzioek nazioartean lehiatzeko aukera izatea da.

#### **Ba al dago horretarako bidezidorrik?**

Bidea jorratu egin behar da. Bidea luzea da, baina borondatea erakustea pauso bat da eta horretan ari gara.

#### **Nola sortu zen ESAIT?**

Hasiera hartan ez nintzen egon. Pilota

munduan zegoen kezka eraginaran, taldea sortu zen, eta beste kirolariak zabaltzeko pausua ematean hasi zuen bere ibilbidea ESAIT-ek.

#### **Zein baliabide ditu ESAIT-ek?**

Hasieran taldea Oiartzunen kokatu zen, bertako Udalak Kiroldegian lokala utzi baitzuten. Gaur egun beste hiru egoitza ditugu: Bilbo, Deba eta Tolosako Udalek utzita. Gure diru iturri bakarra saltzen dugun kirol materiala da.

#### **ESAIT Eguna ere ospatu berri duzue...**

Hamargarren Selektzioaren Aldeko Eguna ospatu dugu aurten. Festa giroan aldarria zabaltzeko asmoz egiten ditugu egun hauek. Lanean ari gara.

guztioak bildu, hitz egin eta urte osoko lana zabaltzeko modua da. Aurten Arabako Izarrran ospatu dugu eta Euskal herriko herrialde guztietan ospatzen saiatzen gara.

#### **Ba al duzue azpiegiturarik Iparraldean?**

Badugu jendea Iparraldean aspaldidanik gurekin lanean ari dena. Bizkaian eta Gipuzkoan dugu indar gehien. Dena den, zazpi probintzietan egiten dugu lan. Diasporako jendearekin ere aritzen gara. Tolosaldea inguru garrantzitsuenetakoa da.

#### **Zein da ESAIT-en estrategia euskal selektzioaren aldarria gauzatzeko?**

Gu herri mugimendua gara; bultzatzaileak gara. Gure lana kontzientzia eragitea da eta politikoei agintzen dutena bete dezaten lan egitea.

#### **Euskal selektzioek zer dute bere alde eta zer bere aurka?**

Gizarteak barneratu du euskal selektzioen beharra, baina agintzen dutenek eman beharreko pausua ez emateko aitzakiak bilatzen dituzte. Gauza bat esaten dute, baina ekintzetan ez dute gauzatzen. Gizarteak esaten duenari ez diote kasurik egiten eta hor dago harresi nagusia.

#### **Gizartea, kirolariak, federazioak eta elkarteek osaturiko lau hanketako mahai aipatu izan duzue...**

Iaz Bilbon, ia hogeita hamar mila lagun bildu ziren. Gizartea gure alde dagoela frogatu zen. Kirolariak ere bere pausua eman dituzte. Kirolari askok uko egin do Espainiako selektzioari. Duela lau urte kirolari eta elkartearen artean hamaika mila sinadura bildu genituen. Federazio gehienek ere bere adostasuna azaldu zuten. Bosgarren hanka falta da, politi-

kariena, alegia. Bideak badaude, baina ez dute gauzatu nahi. Borondate falta dago.

#### **Alderdi politikoekin elkartu zaretenean, nolako harrera izan duzue?**

Gehienek harrera ona egin digute. Baina garrantzitsuenek hitza ez dute bete edo saihestetik jotzen dute. Bidea luzea izango da eta borondatea sortu, indartu eta akuilatzen ere aritu beharko dugu. Euskal selektzioen gaia gizaratuta dago. Gaia pil-pilean egotea lortu da. Orain dagoenek erabakiak har ditzaten lan egiten jarraitu besterik ezin dugu egin.

#### **Kirol elkarte eta kirolariekin harreman estua izango duzue, ezta?**

Saiatzen gara, baina ez dugu nahi adina bitartekorik jarraitu estuago egiteko. Aldarriaren aldeko jarrera azaldu dute gehienek. Bailarako kirol elkarte eta kirolari gehienek, euskal selektzioaren aldeko aldarriarekin bat egiten dute. Batzuek bere elastikoetan euskal selektzioaren aldeko aldarriaren ikurra eramaten dute.

#### **Euskal kirolariak puntara iristen direnean, bere kirol ibilbidea gailurrera iristeko Espainia edo Frantziako selektzioekin ateratzea, normalizat jotzen da. Zer diozue horri buruz?**

Kirolariak goi mailara iritsi nahi izatea normala da, normala ez dena Espainiako selektzioek jartzen duten muga hori da: gu edo inor ez. ESAIT-ek ez du aldarrikatzen gure selektzioa eta kitto, euskal kirolariak, bere koloreekin, ikurrinarekin ateratzeko aukera ere izatea, hori da nahi duguna. Euskal kirolariari nahi duen selektzioarekin aritzeko aukera ukatu egiten zaio. Kirolariak ez dute uko egin behareren ataka horretan egon beharrik. Espainiako selektzioari uko egiteak da-





karren guztiarekin, euskal kirolarietarako ezin diegu esan horri uko egiteko. Aldarri ttikia egitea eskatzen dugu. Dena den, euskal kirolari batzuek uko egin izan diote Espainiako selekzioari.

### Zer diozue Basque Team sortu berriaz?

Jaurlaritzak goi mailako kirolarien aldeko apustua egin du, oinarria ahaztuaz. Ondo dago eliteko kirolariak babestea, baina ez horiek bakarrik. Azken finean Espainiako selekzioarekin ari dira eta ez dute euskal selekzioa ordezkatzen. Inbertsioa egin dute, baina etekina beste toki batean geratzen da. Bestetik euren ekimena hiru probintzietara mugatzen da. Txinan euskal kirolariak egon ziren, baina ez zen euskal ordezkaritzarik izan.

### Ba al dago euskal kirolari intsumisorik?

Badira, noski.

### Olinpiadak, Eurokopa... aitzakia hartuta Espainiaren aldarria nabarmena izan da komunikabideetan. Ez al dira gero eta lotsaga-beago azaltzen Espainiako koloreak euskal kirolarien soinean?

Espainolismoa, erasotua sentitzen delako eman duten erantzuna izango da. Beste urtetan guk hartu izan ditugu kirolariak aireportuan ikurriekin. Gure aldarria estali nahian emandako erantzuna izango da.

### Saskibaloian, futbole... izan dituzten emaitza onak direla eta espainiareriak gure gazte txoak ere harrapatu ditu. Ez al gara euskaldunok partidua galtzen ari?

Hor kontraesan bat dago. Ez dut uste lehen baino indar handiagoa duenik. Betidanik askok eta askok ikusten dituzte Espainiako selekzioen partiduak. Komunikabideen eragina izugarria da.

### Gabonetako futbol partidua folklore hutsean geratzeko arriskua ez al dago?

Guretzat Gabonetako futbol partidua folklorea da dagoneko. Urtean behin kirol saio batean euskaldun sentitu eta horretan gelditzea ezin da onartu. Iaz gure aldarrikapena egitean argi geratu zen gure asmoa. Partidatik askoz hara-tago joan behar dugu. Goian daudenek aurrerapausoak eman behar dituzte.

### Aurtengo partida Iranen aurka da. Zein asmo dituzue?

Oraingoz ez dakit. Iaz selekzioak Euskal Herria izena hartu zuen eta orain, atzerapausoa eman dute Euskadi izena berriro hartuz. Eragile desberdinekin hitz egin eta erabaki honen aurrean zer jarrera hartu aztertuko dugu.

### Demagun Eusko Jaurlaritzak hiru herrialdeetarako selekzioa lortzen duela eta beste herrialdeek ez dutela bat egiten. Zein jarrera izango zenuket?

Hiru herrialdeetako selekzio horrekin ez genuke bat egingo. Gure helburua selekzio nazionala da.

### Zertan ari zarete oraintxe bertan?

Olinpiadak izaten diren urtean kirol federazioetan hauteskundeak izaten dira eta bertan gure aldarria zabaltzen ari gara. Gabonetako partida ere hortxe dago. Aurten, Euskal Herriko Atletismo Txapelketa burutu da, baina Erkidegokoa ez den nafar edo Iparraldeko batek ezin zuen saririk jaso. Hori zuzentzeko lan-keta egiten ari gara. Madrileran joan gabe etxean bertan jartzen dizkigute oztopoak: Nazio Bat, Selektzio bat aldarriari eutsi eta akuitu lanari ekiten jarraituko dugu. ■

### MIKEL UZKUDUN (ESAITEKO KIDEA)

#### Ofizialtasuna

Goi mailako euskal futbol jokalariei gehienek, abenduaren 23an jokatu beharreko Iranen aurkako partida, "Euskal Herria" izenarekin ez bada, ez dutela jokatu jakinarazi diote euskal gizarteari.


Izenak hartu du protagonismo nagusia, eta jokalariek erabakia izen aldaketan oinarrituta hartu duten irudia eman nahi izan da. Baina nire ustean erabaki ausart, tinko eta gogor hori hartzeko arrazoirik nagusia ez datza izenean.

Orain bi urte, Gabonetako selekzioaren partida hartzen ari zen "folklore" kutsu nabarmena zela eta, euskal jokalariek prentsaurreko bat eman zuten Durangon, eta beraien iritzia azaltzeaz gain, aurrera begira, OFIZIALTASUNA lortze aldera, urratsak emateko konpromisoa eskatu zioten Euskadiko Futbol Federazioari. Honek, ondoren, jokalariek egindako bileretan, eskaera aintzat hartu eta Gabonetako partidaz gain, helburua lortze aldera, beste urrats batzuk emateko konpromiso irmoa azaldu zuen. Horrela, iaz, Selektzio Nazional batek behar duen Nazioarteko proiektzioa dela eta, Venezuelan izan zen Euskal selekzioa, eta bertako selekzioaren aurka jokatu zuen. Halaber, Gabonetako ohiko partidari, "Euskadi" izen historikoa baina egun partidista, gutxietsia eta zentzuz hustua dagoena kendu eta, kontzeptu zabalagoa eta onartuagoa duen "Euskal Herria" izenagatik aldatzea erabaki zuen. Beraz, bazirudien gauzak bazihoazela. Baina aurten, eta ageriko arrazoirik eman gabe, iaz emandako urratsek atzerapausu nabarmena izan dute. Alegia, ez dugu atzerrian partidarik jokatu, eta hori aski ez eta,

Euskadiko Futbol Federazioak, iaz, izen aldaketaren inguruan, PNVren aldetik izandako presioak eraginda edo, atzera "Euskadi" izena jartzea erabaki du. Federazioak, berriro ere, iruzur egin du, eta ez du bere hitza bete. Urteak joan eta urteak etorri, horrela jokatzeko ari da. Gurekin, ESAITekin, alegia, horrela jokatu zuen urtetan, eta, orain, jokalariek berdin jokatu nahi izan du. Baina jokalariek, agidanez, ez daude prest Federazioaren, PNVren eta Kirol Sailaren jokatu zikin eta iruzurgile horretan erortzeko, eta Gabonetako partida jokatzeko ari uko eginez, aski dela esan dute.

Arestian, izenak, beste edozer baino gehiago harrotu dituela hautsak esan dut, eta honen inguruko nire iritzia ematea ere gustatuko litzaidake. Izenak izana behar du, eta Euskadiko Kirol Federazioak, Eusko Jaurlaritzako Kirol Sailaren babesarekin, "Euskadi" eta "Euskal Herria" gauza bera izatea deslegitimatzen ari dira. Euskadi Zazpiak Bat bada, zergatik ez zaizkie Nafarroa Garaiko, Nafarroa Behereko, Zuberoako eta Lapurdiko kirolarietarako, Euskadiko Txapelketa ofizialtan lortutako dominak ematen? Ez al dira, bada, "Euskadi" osatzen duten Zazpiak Bat horretan sartzen? Berriro diot, izenak izana behar du, bestela iruzurra egiten eta gezurretan ari zarete. Eta jokalariek, ikusitakoa ikusita, ez dute beste erremediorik izan.

Espero dezagun beste kirolariek ere, futbol jokalariek hartutako bidetari jarraitzeko adorea, kemena eta ausardia izatea, etorkizun hurbilean Euskal Herriko selekzioak, ofizialak izan ditzagun.



# 1936KO GERRAKO OROITZAPENAK

TOLOSALDEAN ETA LEITZALDEAN

## LIBURUA SALGAI

Salmenta:

Liburuaren prezioa: 18 €  
Galtzaundi eta Tolosaldeko  
eta Leitzaldeko Hitzako  
bazkideak: 14 €

Eskaintza bereziak:

5 liburu  
80€

10 liburu  
140 €

Salmenta puntuak:  
Galtzaundi eta Tolosaldeko eta  
Leitzaldeko Hitzako bulegoetan



**ARANZADI**

zientzia elkartea · society of sciences  
sociedad de ciencias · société de sciences



**galtzaundi**

TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO

**hitza**





# Tolosa Alde Zaharra Dendak

## Irabazi ezazu auto bat

*Urtero bezala, aurten ere, Alde Zaharra Dendak Elkartek, Gabonetako kanpaina jarri du martxan. Elkarteko kide diren dendetan erosketa bat egiteagatik, auto eder baten zozketan parte hartuko duzu. Alde Zaharreko dendek, opari hau egin nahi izan diote, urte osoan zehar leiala den bezeroari.*

**A** benduaren 5. egunean jarri du martxan Alde Zaharra Dendak Elkartek Gabonetako kanpaina. Urte berriko urtarrilaren 5a baino lehen, elkarteko kide diren 160 saltokietako batean erosketa bat egiten baduzu, auto eder bat irabazteko zozketan sartuko zara. Zozketa urtarrilaren 9an egingo dute.

### RENAULT DACIA AUTOA ZOKKETAGAI

Alde Zaharreko Dendak Elkartea, duela hiru urte hasi zen gabonetan bezeroen artean sariren bat zozketatzen. "Iaz, elkarteko denda bakoitzak, salgai dituen produktuekin osatutako sorta bat oparitu zion irabazleari. Aurten, zerbait ezberdina oparitzeko gogo genuen; auto bat esate baterako. Inoiz ez dugu autorik oparitu, eta gainera, Rondillan

aparkaleku bat jarri dutenez, bezeroen artean auto bat zozketatzeko garai polita dela iruditu zaigu", azaldu du elkarteko lehendakaria den Itxaropena Elordik.

Horrela, Renault etxeko Dacia Sandero gorri bat (argazkiak ikusi daiteke autoa) zozketatuko dute bezeroen artean. "Autoa garajejan gordeta daukagu orain, baina jendeak ikus dezan, Gabonetan, Tolosako kaleetan zehar ibiliko da, Alde Zaharra Dendak Elkartaren logotipoarekin".

### NOLA PARTE HARTU DAITEKE ZOKKETAN?

Alde Zaharreko Dendak Elkarteko kide diren 160 saltokietako batean erosketa bat egitea nahikoa da zozketan parte hartzeko. Zerbait erositen duzun aldiro, dendariak txartel bat emango dizu, eta zuk, txartel hori bete eta bertan egongo den kutxan sartu

besterik ez duzu egin behar. Ez da beharrezkoa gutxieneko diru kopuru bat gastatzea. Egiten den erosketa txikiak ere bere txartela izango du. Hori bai, gero eta txartel gehiago orduan eta aukera handiagoa izango duzu auto berria eskuratzeko.

Txartelak abenduaren 5etik urtarrilaren 5era arte eskuratu daitezke. Urtarrilaren 9an,

txartel guztiak batu eta zozketa egingo da. Elkartek, urtean bi kanpaina egiten ditu: San Joan jaietakoa eta Gabonetakoa. Lehendakariak azaldu duenez, "bezeroen leialtasuna eskertzeko modua da hau". Zorte on!





# Inbidiari buruz



**INBIDIA EMOZIO UNIBERTSAL BAT DA.**

Iñigo Jiménez

Inbidia minaren eta haserrearen erreakzio moduan ulertzen da, bestea, nik desiratzen dudana eta lortu ez dudana hori erdietsi duela sumatzen dugunean.

Definizio honetatik abiatuta, inbidiaren sorreran ezaugarri ezberdinak aztertu ditzakegu:

- Bestearen satisfakzioa sumatzen dut desio duen lorpen bat izan duelako.
- Hautematen dut, bestearen lorpen hori, nik neronek desiratutako eta bete gabeko helburu batekin bat datorrela.
- Desio dudana baina lortu ez dudana horren gabezia sentimendua pizten zait, eta ondorioz, frustrazio eta inpotentzia sentitzen hasten naiz desio dudana hori lortzeko baliabiderik ez baitut ikusten.
- Besteak desio duena lortzeko sortzen duen poza eta nik sentitzen dudana frustrazioa. Kontraesan hori bizitzen dut.
- Kontraesan horretatik sortutako sentsazio mingarri bat ahazten joango da nire barnean.
- Oinaze hau jasangaitza gertatzen denean kontraesan hori desagertarazten saiatuko naiz. Horretarako, besteak izandako lorpen horretatik sortzen den poza ezabatzen joango naiz.

*“Honekin ikusi daiteke, inbidia ez dela gorrotatzeko era bat, desio dugun gabezia hori gogorazten diguten sentimenduak ezabatzeko saiakeraren desesperatua da. Inbidia, emozio unibertsal bat da. Hau da; gutxiago edo gehiago, gizaki guztiek esperimendatu dugu inoiz.”*



Beraz, inbidiaren funtsa, gabezia sentimendu horrek sortzen duen oinazea ezabatzea da. Era honetan, hi-

rugarren pertsonaren esebetetzeak eragiten digun poza itzaltzetik abiatzen gara, hau baita gure frustrazio sentimenduaren kontraesana.

Honekin ikusi daiteke, inbidia ez dela gorrotatzeko era bat, desio dugun gabezia hori gogorazten diguten sentimenduak ezabatzeko saiakeraren desesperatua da.

Inbidia, emozio unibertsal bat da. Hau da; gutxiago edo gehiago, gizaki guztiek esperimendatu dugu inoiz. Hauek dira inbidia sortzeko baldintzak:

- Behar edo desio jakin bartzuk sentitzen ditugunean eta aldi berean, somatzen dudanean hirugarren pertsona horrek desio horiek asebite dituela.
- Desio horiek betetzeko baliabide edo aukerarik ez dudala uste dudanean.
- Betetzea lortu ez ditudan desioak lortu ditudan baino askoz ere gehiago direnean.

“Inbidia sana” deritzoguna zera da: hirugarren pertsonak, zuk ere desio duzun baina asebite ez duzun lorpen hori erdietsi duela onartzea eta honek dakarren kontraesana aitortzea: “Poza dut lortu duelako. Honek tristura eta frustrazioa eragingo didala badakit, baina onartu egiten dut”.

**Beti Inai**  
jatekoa

Garaian garaiko janariak eta arraikieta bereziak

Tel.: 943 671 920  
Errementari kalea, 16 • 20400 Tolosa

**ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA**

Foruak, 5-bis • TOLOSA  
Tel.: 943 652 712

**KONTSULTA PSIKOLOGIKOA**

Iñigo Jiménez  
Psikologoa eta terapeuta gestaltikoa

Sta. M<sup>o</sup> de la Asunción klinika

Gazte eta helduak | Dependentsia eta  
Dolu-terapia | menpekotasun  
Psikoterapia-prozesua | terapiak: tabakismoa  
astearte eta ostegunetan, 15:00 - 21:00

**ZABALA DESGUAZEAK**

Kudeatzaile baimenduak EU2/111/04

Beotibar industrialdea, 18 - BELAUNZA  
Tel./Faxa: 943 671 790 - Mugikorra: 696 593 347

# Galtzaundiren kultur ekintzak

## IBARRA GALTZA KOMIK 2008

Eguna: Abenduak 12.  
Ordua: 19:30  
Lekua: Ibarako Kultur  
Etxea

### Ibarra Galtzakomik komiki lehiaketako sari- banaketa ekitaldia

Galtzaundi Euskara Taldeak eta Ibarako Udalak elkarlanean antolatutako lehenengo Galtzakomik lehiaketa arrakastatsua izan da oso. Guztira, 100 lanetik gora iritsi dira Euskal Herri guztiatik, parte hartzaile gehienak eskualdekoak izan badira ere. Hasiera batean bi maila bereiztea aurreikusten zen: 18 urtez azpikoen maila eta 18 urtetik gorakoena. Etxeko txikienek egindako komiki ugari iritsi dira ordea, eta antolakuntzak, 10 urtetik beherakoen artean beste sari bat ematea erabaki du.

Komikilari, filologo, margolari eta adituek osatutako epaimahaia elkartu da eta dagoeneko erabaki dute zeintzuk diren saritutako komikiak. Irabazleen izenak, sari-emate ekitaldian jakinaraziko dira. Ekitaldiaren ostean, lunch-a izango da bertaratuko diren guztientzat.

Eguna: Abenduak 18  
Ordua: 20:00  
Lekua: Tolosako Kultur  
Etxea

### Uxue Alberdi idazle eta bertsolariaren hitzaldia

Uxue Alberdi euskal idazle eta bertsolari gazteak, Aulkia elurretan, bere lehenengo narrazio liburuaz hitz egingo du. Liburu hau, 2005eko Igartza Saria irabazi ondoren argitaratu zuen iaz. Bertan, Suedian pasa zituen hilabeteetan izan zituen burutazio eta bizipenekin osatutako narrazioak bildu ditu. Une honetan, bere lehenengo nobela izango dena idazten ari da, Joseba Jaka beka jaso ostean. Datorren udaberrian argitaratuko badu ere, hitzaldian lan berri honen gaineko xehetasunak emango ditu.



Eguna: Abenduak 19  
Ordua: 20:00  
Lekua: Tolosako  
Udaleko Pleno  
Aretoa

### Eskerrak Zuri Aipamen Bereziak



Aurten seigarren aldiz emango ditu Galtzaundik Eskerrak Zuri Aipamen bereziak. Aipamen hauek isilean egiten den lana publikoki aitortzea dute helburu. Era honetan, lau aipamen egiten dira: Kirolaren Eskerrak Zuri Aipamen Berezia, Gizatasunaren Eskerrak Zuri Aipamen berezia, Kulturaren Eskerrak Zuri Aipamen Berezia eta Ohorezko Eskerrak Zuri Aipamen Berezia. Alor bakoitzean adituen epaimahai bat osatzen da eta dagoeneko 2008ko Eskerrak Zuri Aipamen Berezia jasoko dutenen izenak erabakita daude. Goian azaldutako egunean eta lekuan jakinaraziko dira.

**KULTURA >>>** ABENDUAREN 6AN 120 URTE BETEKO DIRA ORIXE OREXAN JAI O ZELA. BERE GARAICO EUSKAL IDAZLE GO

# Orixen nor zen ba al dakigu?

1888an Orixen jaiotako idazlea. Euskaldunak edo eta Barne-muinetan idatzi zituen poesian; *Santa Cruz apaiza*, *Quiton arrebarekin*, eta *Jainkoaren billa* prosan; eta besteak beste, *Tormesko itsu-mutila* itzuli zuen euskarara. 1961ean hil zen. Hori badakigu gutxi asko Nikolas Ormaetxeaz. Baina nor zen benetan Orixen? Zer ekarpen egin zien euskal letrei, eta merezi bezala aitortua al da? Galdera guzti hauek erantzun ditu Galtzaundin, bizitza Orixen ikertzen igaro duen, Paulo Iztueta berastegiarrak.

Erredakzioa

## ORIXE GIZONA: IZAERA KONPLEXUKOA

Duela 120 urte, 1888an jaiotako Nikolas Ormaetxea "Orixen" Orixen. Bere ama Manaxik, hiru erditzetan zazpi haur izan zituen; lehenengo bietan bikiak izan zituen eta hirugarrenean hirukiak. Orixen hirukia izan zen. Poema batean esan zuen bezala, "amak titi baino haur gehiago". Orixerentzat ez zegoen titirik. "Amaren sabelean zegoela jada hasi zitzaizkion Orixeri arazoak", azaldu du Paulo Iztueta. Ume bat geratu zen etxean eta beste biak eraman egin zituzten. Arreba Denuxi Aresosa. Nikolas txikia Uitziko Errekalde baserrian hartu zuten. Arrosa zen bere adopzioko ama. Berak esaten zuen bezala, bi ama baina amarik ez. "Amona Axuntzik, Santa Krutzetan Orixera eramaten zuen Orixen, ama Manaxirekin egon zedin. Berak esaten zuenez, zain egoten zen jaiak noiz bukatuko berriro U-



Orixen Orixen idatzen.

tziko ama Arrosa ikusteko. Pauloren hitzetan, umezaroan, adopzioan hartu zuen amarekin gehiago identifikatzen zen Orixen. "Nire ustez, egoera honek afektuzko sentimenduaren gabezia eragin zion Orixeri. Horregatik zen hain izaera konplexuko gizona, eta horregatik zituen zailtasunak jendearekin harremanak izateko".

17 urterekin Jesuitetan sartu zen Orixen. Jesuiten lege nagusietako bat, betetzearena da, esanekoa izatea, alegia. "Orixen ordea izaera gogorreko pertsona zen, ez zen inoren menara egotekoa, eta, azkenean, Lagunditik bota egin zuten. Hain zuzen ere, Jesuitetan zegoen garai honetan aipatzen du lehen aldiz bere benetako ama eskaintzen dion poesia batean.

"Orduan konturatzen da Orixen, baina orduan ere modu aski abstraktuan: Nire benetazko ama hau da. Nik beste bat bizitu badut ere, honek erditu ninduen. Adopziozko amarenganako afektua sentitzen zuen eta benetako amarenganako, berriaz, errukia afektuarekin nahasian. Bi sentimendu kontrajarri horien arteko gatazka horretan bizi izan zen Orixen". Orixek bere burua "gaitzetsizat" jotzen zuen. Honek eta lehen aipatutako ahulezia sentimental horretatik eraiki zen Nikolas Ormaetxearen izaera konplexua, inoiz zakarra izaten ere bazekiena. "Batzuek, zuen izaeragatik, basurde deitzen zioten eta lagunartekoek, batzuetan, andregaiekin tentatzen zutelako edo mahaian apetitu

onekoa zelako, broma gaizto samarrak ere egiten zizkieten. Bere herrian bertan, Orixen, ez zuen izan tratu handirik bertako baserriarrek. "Orixen bezalako herri txiki batean, denek gogor egiten zuten lan baserrian. Orixen berriz beti zegoen idatzen. Batzuetan mendira joaten zen, Espurura, burua argitzera, edo belaze batean korrika egitera. Noizbehinka lizar baten gainera igota ere ikusten zuten. Noski, oso bere kontura zebilen horrelako gizon bat, baserri giro hartan, oso bitxia izan behar argitik argira lana baino egiten ez zuten herritarrentzat".

## ORIXE IDAZLEA: BERE GARAIOAN ERREFERENTEA

Idatzen duen oro da idazlea.



## AL IDAZLE GORENA IZAN ZEN. MEREZI BEZALA GOGORATZEN AL DA?

Idazten duena fikziozko literatura ala ez-fikziozkoa, horretan dago aldea. Paulo Iztueta-ren aburuz, idazlea da idazten dakiena, hizkuntza menperatzen duena eta genero batean edo bestean adierazteko gai dena. “Lizardi bikaina zen poeta bezala, berdin Lauaxeta, biak gorenak eta neurri batean besteen aldean modernoagoak, baina bere garaian asko ziren haiek bezain ondo edo hobeto idazten zutenak. Bestalde, Axularrek ez-fikziozko prosa landu zuen bere saioan, ez literatura, baina ezin esango da idazlea ez zenik eta, gainera, garai-garaia. Idazle batzuk literaturan nabarmentzen dira eta beste batzuk saioan. Orixe, hain zuzen, bietan zen idazle gorena, literaturan zein saioan. Bietan sortzaile. Bere garaian bi dimensio horiek hain ondo uztartzen zituen beste idazlerik ez zegoela esango nuke. Idazle ikaragarria zen”.

Orixek Txikitatik zekarren, Uitziko familiatik, Jainkoarenaganako jaiera. Berak aitortua da lehen irakasle handia, gauza mistikoetan, bere sukaldeko amatxi Axuntzi izan zela. Hamasei urterekin Jesuiten Lagundira joateko, zerbait sentituko zuen barruan. Baliteke, Lagunditik ohildua izatean, bere erruduntasun-sentimenduak eraginda, lehendik zekarren mistikarako joera areagotzea. Izan ere, Lagunditik norbait ohildua zenean, ifernuko txartela zeramala esaten zen. “Asko idatzi zuen mistikaz eta

erlijioaz: Batetik erlijioa beste edozer baino goragoko gaitzat zeukalako, eta bestetik, Jesuitetatik bidalia izan zenez, Jainkoaren aurrean bere burua salbatu nahi zuelako”. Dena den, Paulok argi utzi nahi izan du, Orixe idatzitako poemarik ederrenak lirikoak direla, mistikoak.

1918–1923 urte artean, Jesuitetan, Jesusen Bihotzaren Deian artikulua idazten hasi zenean jada, bere lumak arreta deitu zuen. 1921ean, Durangon bi hitzaldi eskaini zituen azentuari buruz, eta geroago, hamarkada horren buruan, Donostian neurtitzi buruzko beste hitzaldi bat. Biak izan ziren zein baino zein interesgarriagoak. Bitarte horretan, 1927an, euskal literaturaren historia ikertu zuen, lehen saria eraman zuena.

Lan honetan, g e r o a g o Luis Mitxelenak aitortuko duen bezala, era-

kutsi zuen idazle klasikoak oso ondo ezagutzen zituela”. Jesuitetik atera eta gero, 1924tik 1931ra bitartean, lehenik Euskaltzaindian aritu zen Azkue-rekin lanea, eta ondoren, Euzkadi egunkarian ibili zen. “Gerra aurrean oso idazle ezaguna eta goraipatua izan zen Orixe eta, goren mailako idazletzat zeukatelako, eman zioten poema nazionala burutzeko enkargua. Zalantzarik gabe bere garaiko idazleen artean erreferentea izan zen”. Gerra aurreko poesigintzan, “Orixe euskara jaso, elitista erabili nahi zuen, baina hau, herri-euskara argi eta sendo batekin uztartuz. Aitzolek, orde, ez zuen gustukoa eta Euskal Olerki sariketatik baztertu egin zuen. Miretsiegia zen, baina aldi berean baita baztertua ere”.

Gerratik ihesi Guatemalara joan zenean, eta handik El Salvadorera, hemen idatzi zituen Iztueta-ren iritziz poemarik ederrenak. Berak jarri zuen bere lankidetzarekin gorabidean Euzko-Gogoa. Handik Euskal Herrira 1954an itzuli zenean, ospe handia zuen. “Oso miretsia zen. Bere kurrikulumarengatik miresten zuten. Baina ordurako gauzak aldatzen hasiak ziren euskal letren inguruan, batez ere, euskararen batasunaren inguruan, eta Orixe, garai berri hartako eskakizunetara moldatu ez zenez, baztertua geratzen zen. Euskal-

tzaindiak, Mitxelena gidari zela, aurrera egin zuen euskara batuaren ildotik eta Orixe bere bizitzako azken urteak nahiko bakarrik igaro zituen, Karmel-en babesean. Horrela, 1961ean hil eta gero, 1970. urtetik aurrera Orixe-ren izena itzaltzen joan zen pitinka-pitinka. “Orain hasi da ostera Orixe-ren izena entzuten. Irakurria den heinean jendea ohartzeko doa, haren ikuspegi kontserbadorea gorabehera, zein idazle ona den”. Hala ere, Iztueta-ren ustez, gaur egun, Orixe oraindik ere ez dago merezi duen mailan baloratua.

### ETA GAURKO OREXAR GAZTEEK EZAGUTZEN AL DUTE ORIXE?

Galdera hau ere erantzuten jakin du Paulo Iztueta: “Orixe-ren mendeurren Orixek bere herriko semearekin adiskidetzeko eta berriro ere herri-ekartzeko balio izan zuen. Ordura arte herriko zaharrek ezagutzen zuten soilik, gazteenek ez. Hainbat ekitaldi egin genituen. Hitzaldiak, bazkariak. Nik txango bat egin nuen Uitzitik Orixera, Orixe egiten zuen ibilbide bera. Nolabait Orixe lotu ezin zituen bi herri horiek lotu nahi izan nituen, sinbolikoki bazen ere”. Orduz geroztik, urtero-urtero, Orixek eta Uitziko gazteek ibilbide hori egiten dute, urte batean Orixetik Uitzira eta hurrengoan Uitzitik Orixera. “Ibilaldi horretan Orixe presente egoten da. Uitziko kultur etxeak ere Orixe izena du, eta Orixek Orixe-ren estatua dago”. Orixe ez da ausentzia bat. Presente dago bere jaio-terrian. ■



# Eskubaloia, gero eta gazte

TOLOSA CF-N HIRU ESKUBALOI TALDE DAUDE. AZKEN URTE

Leire Zubeldia

**E**skubaloia osasuntsu dago eskualdean. Sentsazio hori uzten dute Juan Martin Amiano, Tolosa CF-ko eskubaloi alorreko koordinatzaileak emandako datuek. Izan ere, gero eta gehiago dira eskualdean, eskubaloian jokatzera animatzen diren gazteak. “Duela lau urte, Tolosa CF-ko zuzendaritza aldatu zenean, lehendakari berriak, Iñaki Arratibelek, klubean eskubaloia lantzen hasteko proposamena egin zidan, eta horrela hasi ginen”, kontatu du. Lehenengo urtean seniorren eta jubenilen taldeak osatu zituzten. “Baina gerora konturatu ginen, alferrik zela helduenen mailan talde bana izatea hauek

**Infantil, kadete eta senior mailetan eskubaloi talde bana du Tolosa CF-k. Datorren urtean, katea osatzeko falta den katebegia, jubenil mailako taldea, sortuko dute. Urteetako etenaldi baten ostean, duela lau urte hasi ziren eskubaloia berreskuratzeko lanean. Geroztik, hazten joan da kirol hau aukeratzen duten gazte txoen kopurua.**

elikatzeko harrobirik ez bage-nuen”. Horrela, bigarren denboraldian, duela hiru urte beraz, infantil mailako taldea jarri zuten martxan. Orain, infantil, kadete eta senior mailan eskubaloi talde bana du Tolosa CF-k eta datorren urtean jubenil mailako taldea ere abian jartzeko modua izango dute. Horrela, guztira 60 lagun inguru dira Tolosa CF-n eskubaloian jokatzeko dutenak eta esan bezala, datorren urtean kopuru hori hazi egingo da. Hurrengo denboraldiari begira jarraituz, beste asmo baten berri ere eman du Amianok: “Nesken senior mailako taldea osatu nahi dugu. Izan ere, Andoingo Leitzaran taldea uz-

tezko asmotan dauden hainbat neska gurekin jarri dira harremanetan. Eurekin eta animatzen diren eskualdeko neskekin osatu nahi genuke taldea”. Mutilekin gertatu bezala, senior mailatik hasi eta gainontzeko mailatan nesken taldeak sortu nahi dituzte pixkanaka. Datozen urteei begira erronka hori dute Tolosa CF-n.

Duela lau urtetik gaur arteko kontuekin gabiltzan arren, eskubaloia ez da kirol berria Tolosaldean. Juan Martin Amiano bera Tolosako klubeko eskubaloi jokalaria izana da. “1976. urtea izango zen Tolosan eskubaloian jokatzeko hasi ginenean. Taldeak gorabeherak izan zituen. Gogoratzen naiz, garairik onenak 1983 urte

inguruan izan zirela. Orduan, nazional mailako bigarren mailan jokatzera iritsi ginen”. Hori da Tolosa CF-ko eskubaloi talde batek jokatzera lortu duen mailarik gorena. “Gero taldea bertan behera geratu zen, duela lau urte ostera berreskuratu genuen arte”.

## DENBORALDIA BIKAIN HIRU TALDEENTZAT

Jokalari gazteak, hasi berriak ditu Tolosa CF-k, baina denbora gutxian kantxan ondo mugitzen ikasi dute. Denboraldi honetan lortzen ari diren emaitzek erakusten dute hori.

Infantil mailako taldea lan txukuna egiten ari da Juan Martin Amianoren hitzetan. Lau



Kadete mailako taldea, sailkapenean lehen tokian doa.

# azte gehiagoren aukera

UDE. AZKEN URTEETAN GORAKA EGITEN ARI DA KIROL HAU.



Senior mailako taldeak, Gipuzkoako lehenengo mailara igotzea du helburu.

partidu jokatu dituzte orain arte, bi irabazi eta bi galdu dituztelarik. “Maila bakoitzean bi urte igarotzen dira. Beraz, urte beteko aldea egoten da jokalarri batzuen eta besteen artean, eta urte batean asko ikasten da. Gure infantilek urte bat daramatzate lehiaztzen. Hori kontutan hartuta oso ondo ari direla esan daiteke”.

Kadeteentzat denboraldi bikaina izaten ari da. Orain arte jokatutako partidu guztiak irabazi dituzte. “Lehenak goaz sailkapenean, eta horrek ilusio izugarria sortzen du gazteen artean. Jendeak ere badaki kadeteak oso ondo ari direla eta horregatik, gero eta jende gehiago etortzen da Usabaleran partiduak ikustera”.

Azkenik, senior mailako taldea egiten ari den lana azpimarratu nahi izan du Amianok. “Ondo ari dira jokatzeko. Sailkapenean hirugarren goaz une honetan”. Seniorren taldeak Gipuzkoako bigarren mailan jokatzeko du eta lehenengo mailara igotzea dute helburu. Sail-

kapeneko lehenengo bi taldeak igotzen dira mailaz. Tolosa CF hirugarren postuan dagoenez, oso eskura dute igoera.

Usabalen jokatzeko dituzte eskubaloia partiduak, eta bertan egiten dituzte baita ere entrenamenduak. Kadeteen kasua kenduta, “jende gutxi joaten da partiduak jarraitzera, eta joaten direnak gaztetxoek gurusoak eta lagunak izaten dira”.

Emaizta onak lortzeko gogor entrenatu behar dela gauza jakina da. Seniorrekastean hiru egunetan izaten dituzte entrenamenduak Andoni Arando entrenatzaile aretxabaletarraren agindupean. Kadeteen entrenatzaileak Julen Oliben eta Jon Caminos tolosarrak dira. Hauek astean birritan entrenatzen dute, infantilen antzera. Azken hauen entrenatzaileak Alvaro Agirre eta Jon Ormaetxea dira. Infantilek, kadete eta senior mailako jokalariek gain, alebin mailako mutikoak ere jo eta su aritzen dira eskubaloian. Ostiralero izaten dute hauek entrenamendua.

“Alebin mailan ez dago konpetitziarik. Ezin dute jokatu baina hala ere, hutsik egin gabe etortzen dira ostiralero-ostiralero entrenamenduetara, hurrengo denboraldian, infantile mailara igaroko baitira eta ordurako prest egon nahi baitute”, dio Amianok.

## ESKUBALOA, GORA DOAN KIROLA

Futbola beti dago modan. Saskibaloia gorakada handia izan du azken urte hauetan. Bada, eskubaloia ere gorakada kirol moduan definitu du Juan Martinek. “Nire ustez, mutikoak konturatu dira, futbolaz gain badaudela beste hainbat kirol jokatzeko politikak direnak. Horren kontzientzia hartu dute. Horren emaitza da, eskubaloian jokatu nahi dutela eta, mutikoak guregana etorri izana”. Eskubaloia kirola egiteko beste aukera bat da gaztetxoentzat, futbola edo saskibaloia bezala.

Behin hasiz gero, gaztetxoek gustagarri egiten zaien kirola dela

azaldu du Amianok. “Euren ilusioa eskubaloian jokatzeko da. Inork ez du entrenamendu bakar bat ere galtzen, denek egon nahi izaten baitute asteburuko konbokatorian”. Eskubaloiak sortzen duen ilusioaren beste adibidea, partidurik jokatzeko ez duten, baina hala ere, astero entrenatzera joaten diren alebinena dela errepikatu du.

Juan Martin Amianok, klubeko koordinatzaile lanak egiten ditu gaur egun, baina garai batean eskubaloia jokalaria izan zen. Berarentzat, eskubaloia kirol indartsua eta noblea da. “Niri lagun asko eman dizkit eskubaloiak. Kantxan arerioak direnak, kantxatik kanpo lagunak dira”. Kirol polita da eskubaloia. Tolosa CF-tik, eskualdeko neska-mutilak animatu nahi dituzte froga egitera. Eskubaloia kirola egiteko beste aukera bat delako, gero eta gazte gehiagok egiten duen aukera gainera. ■



# Abenduaren 5etik 19 arteko hitzorduak

Ekitaldiren baten berri eman nahi baduzu, deitu 943 655 004 telefonora edo idatzi e-posta bat [erredakzioa@galtzaundi.com](mailto:erredakzioa@galtzaundi.com) helbidera

## ERAKUSKETAK

### ARANBURU JAUREGIA

»» Abenduak 8ra arte: Errusiara leihoa. Errusiako txotxongiloen erakusketa. Titiri-jai txotxongilo jaialdiaren baitako ekimena.

### FRONTOI KAFETEGIA

»» Hilabete honetan zehar: Irudia eta bere ingurumaria. Xabier Salazarren beirazko lanen erakusketa.

## BONBERENEAREN 11. URTEURRENA

»» Abenduak 5: Pello Ramirezzen kontzertua 22:30ean. Bonbereneak eta Galtzaundik elkarlanean antolatuta.

»» Abenduak 6: Txotxongilo emanaldia, Cabaret de Marionetas taldearen eskutik. 22:30ean.

»» Abenduak 7: Txotxongiloak, Circo loco de las marionetas emankizuna haurrentzat, 17:00etan. Gauean, Cabaret de Marionetasen emanaldia helduentzat, 22:30ean.

»» Abenduak 8: Asto bathipodromoan, haurrentzako antzerkia 17:00etan.

»» Abenduak 12: Doctor Deseo taldearen kontzertua 22:30ean. Txolarre Irratiaren aldeko kontzertua izango da.

»» Abenduak 13: Gatibu taldearen zuzeneko 22:30ean.

»» Abenduak 14: Zine elkarrizketa, Grass, eta Marihuana, la hierba de la discordia filmeen inguruan.

»» Abenduak 18: Bonberenea Txarangaren Rocka eta urrezko komona bigarren diskoa kanean! 22:30ean, Zura eta Sorele Leone (Zurich) taldeen kontzertuak.

»» Abenduak 19: Por todos tus muertos antzerkia 22:30ean.



## DURANGOKO AZOKA

»» Abenduak 6: Galtzaundi Euskara Taldeak eta Aiurrik antolatuta autobusa irten-go da Tolosatik Durangora: 10:00etan

Tolosako tren geltokitik irtengo da. 10:10ean Villabonan egingo du geldialdia eta 10:20an Andoainen. Durangotik itzulera arratsaldeko 19:00etan izango da. Izen-ematea Galtzaundin.

## KONTSEILUAREN EKITALDIA BEC-EN

»» Abenduak 13: Galtzaundi Euskara Taldeak, BECera joateko autobusa antolatu du. Autobusa, arratsaldeko 15:30etan irtengo da Tolosako tren geltokitik. Izen-ematea Galtzaundin.

## TXULETAREN FESTA

### ZERKAUSIA

»» Abenduaren 5etik 8ra: Afariak abenduaren 5etik 7ra bitartean eskainiko dira. Bazkariak abenduaren 6tik 8ra bitartean. Jatorduaren prezioa 40 eurokoa izango da. Erreserbak: 943 69. 74 13 telefonon edo [tour@tolosaldea.net](mailto:tour@tolosaldea.net) helbidean.

**KEY-LAN**  
SARRAILGINTZA

Nafarroa etorbidea, 13-behea  
20400 Tolosa  
Mobila: 670 417 922  
Tel./Faxa: 943 650 313

**Beatriz**  
Dekorazioa  
Donostia - Tolosa

Donostia	Donostia	Tolosa
San Martin, 16	Garibai, 8	Rondilla, 11
943 425 886	943 420 259	943 670 615
943 420 187	943 430 947	943 671 149

- Gortinak
- Edredoi nordikoak
- Mantak (bat erosita beste bat opari)
- Ohazalak
- Alfonbrak etab.

**Arteka**  
ESKULANAK

Nafarroa etorbidea, 10  
TOLOSA  
Tel.: 943 655 577

**TINDATEGIA**

**KALZ**

Laskorain kalea • TOLOSA  
Tel.: 943 652 618

**kutxa**

**ITURRALDE**  
INDUSTRI-HORNIDURAK

Donostia etorbidea, 17 - Tolosa  
Tel.: 943 655 865

## MIKEL AZKARATEREN ALDEKO JAIA

### ZERKAUSIA

» **Abenduak 14:** Eguerdiko 12:00etan, poteoa Euskal Herriko txoko ezberdinetatik etorritako txarangek alaituta. Arratsaldeko 14:00etan, bazkaria Zerkausian. Txartelak salgai Tolosako tabernetan. Hauek eskuratzeko azken eguna: Abenduak 11.

## ANOETAKO KIROL ASTEA

» **Abenduak 9:** 19:00; **Batelen inguruko hitzaldia** eta DVD emanaldia udal areto nagusian.

» **Abenduak 10:** 19:00; **Mendi diaporama:** "Alpimanbo espedizioa: Trangoko dorreak, Pakistan". Udal areto nagusian.

» **Abenduak 11:** 19:00; **Txirindularitzari buruzko mahai-ingurua.** Hizlariak: Abraham Olano, Leire Olaberria, Itsaso Leunda, Josu Agirre eta Oxel Leunda. Udal areto nagusian.

» **Abenduak 12:** 17:30-19:00; Pilota sustatzeko jokoak frontoian. 19:30; Paleta goma partidua. Nesketan: Itsaso Urkizu eta Maitte Ruiz de Larramendi, Maider Mendizabal eta Nagore Arozenaren aurka. Mutiletan: Bittor eta Juan Karlos Otero, Xabier Zubeldia eta Aitor Landaren kontra.

» **Abenduak 13:** 16:00-19:00; **Spinning maratona** polikiroldegian.

» **Abenduak 14:** 10:00; **Ginkana** famillierra.

» **Abenduaren 9tik 14ra:** Kirola Anoetan erakusketa kiroldegian. Orduetgia: 09:00-12:30 eta 15:00-21:30.

## MOTZEAN

### Abenduak 12, Doctor Deseoren kontzertua Txolarre Irratiaren alde

Abenduaren 12, Bonberenearen 11. urteurreneko ospakizunen baitan, Doctor Deseo talde bilbotarrak kontzertua eskainiko du gaueko 22:30etan hasita. Tolosako etxe okupatuaren borondatez, kontzertu hau Txolarre Irratiaren aldeko ekimena izango da.

Kontzertuaren sarreran, Txolarre Irratiko lagunek prestatutako ikus-entzunezko txiki bat eskainiko da. Honen helburua, Txolarre Irratiak urte berrian antolatuko dituen ekimen sortari hasiera ematea izango da. Bai Txolarre Irratiak eta bai Bonbereneak kontzertu honetara etortzeko deia luzatu dute.



### Guardiako farmaziak

#### ABENDUA

- Ostirala, 5**  
Azpiroz L. (Amaroz, 9) Tolosa
- Larunata, 6**  
Iturrioz I. (Euskal Herria, 3) Ibarra
- Igandea, 7**  
Morant R. (Zabalameda, 1) Tolosa
- Astelehena, 8**  
Olarreaga M. (Marin J. Iraola, 10) Tolosa
- Astearte, 9**  
Olarreaga J. (korreo kalea, 2) Tolosa
- Asteazkena, 10**  
Echeveste, J.M. (Gemikako arb. 3) Tolosa
- Osteguna, 11**  
Bronte C. (korreo kalea 20) Tolosa
- Ostirala, 12**  
Azpiroz L. (Amaroz, 9) Tolosa
- Larunbata, 13**  
Santamaria I. (Nafarroa etorb.2) Tolosa
- Igandea, 14**  
Ugarte M<sup>o</sup> Teresa (Euskal Herria, 46) Ibarra
- Astelehena, 15**  
Morant R. (Zabalameda, 1) Tolosa
- Astearte, 16**  
Olarreaga M. (Marin J. Iraola, 10) Tolosa
- Asteazkena, 17**  
Bronte C. (korreo kalea 20) Tolosa
- Osteguna, 18**  
Echeveste, J.M. (Gemikako arb. 3) Tolosa
- Ostirala, 19**  
Iturrioz I. (Euskal Herria, 3) Ibarra

### Telefono interesgarriak

<b>Alegia-Amezeta-Abaltzisketa-Albiztur</b>	
Osasun zentroa	943 653 212
<b>Altzo</b>	
Medikua	943 654 737
<b>Anoeta-Alkiza-Hernalde</b>	
Medikua	943 652 339
<b>Baliarrain</b>	
Medikua	943 889 003 (asteazk.)
<b>Berastegi-Elduain</b>	
Medikua	943 683 361
<b>Bidegoian</b>	
Medikua	943 681 134
<b>Ibarra-Belauntza-Berrobi-Gaztelu-Leaburu</b>	
Osasun etxea	943 672 411
<b>Ikaztegieta</b>	
Medikua	943 653 329
<b>Irura</b>	
Osasun zentroa	943 690 720
<b>Tolosa</b>	
Anbulatorioa, larrialdiak	943 650 931
San Esteban, hitzordua	943 006 800
Gemikako Arbola, hitzor	943 006 900
Amarozko dispensarioa	943 672 637
Asunzion klinika	943 675 799
(larrialdiak)	943 675 390
San Kosme San Damian	943 672 932
geriatrikoa	943 675 858
Udaltzaingoa	943 650 016
Ur eta Argia (Tolargi)	639 352 156
Ur zerbitzuak (aberiak)	943 670 325
Iurreamendi egoitza	112
Larrialdiak, Suhiltzaileak	943 672 536
DYA	943 674 888
Gurutze Gorria	943 651 425
Ertzantza	943 673 022
Tolosako Gasa	943 675 320
<b>Lizartza</b>	
Medikua	943 682 077
<b>Orendain</b>	
Medikua	943 655 595
<b>Orexa</b>	
Medikua	943 682 228

ARTESANIA  
**ZUEN TZART**  
eskuz esku  
arrunta berezi bihurtu!

GERNIKA, 4 TOLOSA  
ARTESANIAZUENTZART@EUSKALNET.NET  
TEL. 943 650 359

**JARRI ZURE PUBLIZITATEA**  
943 655 004

URDAIKARIAK  
*Altuna*  
HARAKINAK

Korreo, 39  
Tel.: 943 671 414

20400 TOLOSA  
Gipuzkoa

## Muxu-truk

Zure iragarkia muxu-truk atalean doanik jartzeko aukera duzu. Deitu 943 655 004 telefonora

### LANA

- **Adineko pertsonak** edo gaixoak zainduko nituzke. Esperientziaduna eta profesionaltasuna. Karlos, **680 983 527**
- **Hortz protesikoa** eskaintzen da laborategian edo auxiliar lanetan aritzeko. **671 44 66 15**
- **Sukalde laguntzaile** edo **plater garbiketarako** lan bila nabil. **671 44 66 15**

### ETXEBIZITZA

- **Etxebizitza salgai** Alegian. 65 m<sup>2</sup>. 168.000 euro. **629 52 51 50.**
- **Etxebizitza salgai** Izaskun auzoan. 60 m<sup>2</sup>. 2 logela, sala, sukaldea eta komunarekin. **645 718 536**
- Ikasle bat, **pisu bat konpartitzeko** beste ikasleen bila dabil. 627834993.
- **Garaje bat** alokatzen da Anoetako San Juan kalean.

### ALOKAIRUA

- Tolosako Iparragirre auzoan 34 m<sup>2</sup>ko lokala alokairuan. Argitsua eta egoera onean. **645 710 789.**

### SALGAI

- **Kotxe bat salgai** BMW 330 D full equipa 18.000 euro. **629 52 51 50.**
- **Kotxe bat salgai** Matrikula: 8351 JX. Prezioa: 961 euro. **617 863 669.**
- **Artzai txakurra salgai** 617 863 669

# HOROSKOPOA

ABENDUAREN 5ETIK 19RA ARTEKO AURREIKUSPENA



## ARIES

Martxoak 21 – Apirilak 21

Soilik zuretzat izango ditu begiak. Oso une politak biziko dituzue, baina ez gaizki ohitu. Boladak izaten dira, etorri bezala joan egiten direnak. Pazientziarekin zikoitz xamar zabilta.



## TAURUS

Apirilak 22 – Maiatzak 21

Beti egiten duzu komeni zaizuna. Behingogatik nahi duzuna egin beharko zenuke. Errebelde puntu horrek bizitasuna ekarriko dizu eta gustura sentituko zara zeure buruarekin.



## GEMINI

Maiatzak 22 – Ekainak 21

Mugarik gabe jateak ez zaitu alaituko. Geratu aspaldi ikusi ez dituzun lagun horiekin. Pentsatzen duzunaren kontra, eurak ere zurekin egoteko desiatzen daude.



## CANCER

Ekainak 22 – Uztailak 22

Horrenbeste gorabehera sortu dizkizun urte honek, amaiera baikaina izango du zuretzat. Abendua hilabete ona izango da, batez ere arlo ekonomikoan.



## LEO

Uztailak 23 – Abuztuak 22

Beti dago zerbait galtzeko, baina arriskatzen ez bazara ez duzu ezer irabaziko. Izarrek eragin positiboa izango dute zure zeinuarengan, beraz aurrera!



## VIRGO

Abuztuak 23 – Irailak 22

Ez ilusio handiegirik egin, ez da espero duzuna. Bestalde, ondo babestu hotzetik, oso ahul zabilta eta gutxi behar duzu bi asterako ohera eramanango zaituen gripe bat harrapatzeko.



## LIBRA

Irailak 23 – Urriak 22

Errazegi etsitzen duzula pentsatzen duzu eta horregatik orain ez zaude amore emateko prest. Kasu honetan ordea hobe lehenbalehen uzten baduzu, zure saiakera ez da inora helduko.



## SCORPIUS

Urriak 23 – Azaroak 22

Ez du zure purrustaden beharrik. Babsa ari zaizu eskatzen. Hortaz konturatzan ez bazara galdu egin dezakezu. Lanean ezusteko on bat izango duzu.



## SAGITTARIUS

Azaroak 23 – Abenduak 21

Gehiago jarri beharko zenuke zure alde-tik. Berak asko jarri du jada, eta ezer jaso gabe jarraitzen badu nekatu egingo da. "Maite zaitut" bat nahikoa da.



## CAPRICORNUS

Abenduak 21 – Urtarrilak 20

Ate bat itxi eta beste bat zabaltzeko une egokia da. Aldaketa batek on egingo dizu, eta bestetik, bide berri bati ekiten badiotzu izarrak alde izango dituzu.



## AQUARIUS

Urtarrilak 21 – Otsailak 20

Aspaldian ez duzu detailerik izan etxekoekin. Gustura utziko dituzu buruan duzun opari hori egiten badiezu. Jende interesgarri ugari ezagutuko duzu hemendik urte bukaerara.



## PISCIS

Otsailak 21 – martxoak 20

Zakur zaharra zara kontu hauetan. Hala ere, ibili zaitez tentuz, zabiltzan eremuan irrist egitea oso erraza da. Erosi gabonetako loteria. Zortea zure alde duzu.







**ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA**  
Foruak, 5-bis • TOLOSA  
Tel.: 943 652 712

**Tolosako eskumuturrekoa**  
Eskumuturreko honek Tolosako sinbolorik adierazgarrienak marrazten ditu.

- Santa Maria elizaren panoramika.
- Udaltexea
- Gaztelako atea. Erdi Aroko hirigunera sartzeko arku handia
- Gipuzkoako Artxibategia. XVI. mendetik Tolosa da probintziako artxibategiaren egoitza.
- Tolosako Inauterik: Euskadiko inauterietan garrantzitsuenetakoa.
- Tolosako babarrunak: Hiri honekin oso loturik dagoen eta sona eta kalitate handia duen laborea.

**CIDen bakarrik**

**www.galtzaundi.com**

Edizio jarraia  
Normalizazioa  
Kultura  
Agenda...

[galtzaundi@galtzaundi.com](mailto:galtzaundi@galtzaundi.com) • [erredakzioa@galtzaundi.com](mailto:erredakzioa@galtzaundi.com)  
[kultura@galtzaundi.com](mailto:kultura@galtzaundi.com) • [tepe@galtzaundi.com](mailto:tepe@galtzaundi.com)



**maite estetika eta kosmetika zentroa**

**Diodo Laserra:**  
Azken generazioko Diodo Laserra, ilea edo biloa kentzeko eraginkorra.  
• Erabateko eragina.  
• Klimikoki frogaturiko depilazioa.

**Mikropigmentazioa:**  
• Akats txikiak konpontzen ditu eta zure bertute onenak nabarmentzen ditu.  
• Ezpainak, bekainak eta betazalak (Eye Liner).

**Gabonetako oparia:**  
Jendea zorionsu sentitzea nahi duelako oparietako bonoak sortu ditu Maite estetika eta kosmetika zentruak. Bonoekin zure lagun maiteei tratamendu estetiko aurreratuak eta produktu kosmetikorik hoberenak oparitu ahal dizkiezu.

Gabon hauetan oparitu osasuna eta zoriontasuna!

Tfnoa. 943 670338 | Leitza kalea z/g Tolosa

**Maite**  
ESTETIKA ETA KOSMETIKA ZENTROA  
ondo doakizu.



## Abenduan 3.500 €\* gertuago izango duzu zure Corolla Verso



### Toyota Corolla Verso Sol 136 ZP Diesel berria. Kalitatea eta asmamena 7 lagunentzat.

Aprobetxa ezazu merkeago dagoela eta serieko hornidura duela:

- Bi zonako klimatizatzaile automatikoa
- Eserlekuak tolesteko Easy Flat 7 sistema
- Egonkortasun kontrola eta 9 airbag
- Aparkatzeko sentsorea aurrean eta atzean
- 16"-ko aleazio hagunak
- MP3 audio sistema, 6 CDko kargadorearekin

Aurki ezazu hemen zure beharretara ondoena egokitzen den Corolla Verso autoa: [www.toyota.es](http://www.toyota.es)



TODAY TOMORROW **TOYOTA**



Irudiko modeloa eskaintzako modelo bera da.  
\*3.500 € merkeago Toyota Corolla Verso Sol 136 ZP Diesel autoak, biltegian daudenak.  
Toyota Corolla Verso bat daukazu 20.800 € \*80-tik aurrera.  
CO2 emisioa (g/km): 164-184 bitarte.  
Batez besteko kontsumoa (l/100 km): 6,4-7,7 bitarte.

EuskoAuto

**OLABERRIA:** lurre auzoa, Karobi poligonoa. Tel.: 943 805 926  
**BERGARA:** Olabarrena z/b. Tel.: 943 762 385

**ELGOIBAR:** Olaso poligonoa, 25. Tel.: 943 747 417  
**PASAIA:** San Markos errepidea, 32. Tel.: 902 345 245